

400 pezeta.
15 libera

hik hasi

euskal
heziketarako
aldizkaria

26

1998ko MARTXOA

Hezkuntza
kooperatibak
gaia

Maite Garcia
elkarrizketa

Ikasleak filosofatzen
Gehigarria

Zer da eskultura?
Praktikatzen

Argitaratzailea:

XANGORIN

Zirkuito Ibilbidea,
2. Pabilioia. 20.160
LASARTE-ORIA
GIPUZKOA.
Tel: 943/ 37.15.45
Fax: 943/ 36.10.48

Lege Gordailua: SS-1001/95
ISSN: 1135-4690

Koordinatzailea:
Jose Mari Auzmendi

Erredakzio burua:
Ainhoa Azpiroz

Erredakzio batzordea:
Itziar Barriola, Mikel Estonba,
Arantxa Goiburu,
Mari Karmen Irastorza,
Kristina Mardaraz,
Josi Oiarbide, Juanjo Otaño,
Fito Rodriguez, Maite Saenz,
Xabier Sarasua eta
Arantxa Urbe.

Aholkulariak:
Imanol Agirre, Begoña Bilbao,
Mariam Bilbatua, Xabier Isasi,
Irene Lopez-Goñi,
Izaskun Madariaga,
Kepa Perez Urraza,
Lore Erriondo,
Lontxo Oihartzabal eta
Pruden Sudupe.

Diseinua:
Zart

Maketazioa, fotomekanika:
Xangorin.

Inprimategia:
ANTZA S.A.L.

Azaleko argazkia:
Ikor Kotx

Hezkuntza, Unibertsitate eta
Ikerketa Sailak Onetsia
1.998/III/3

Kopurua: 3.500 ale

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

HEZKUNTZA KOOPERATIBAK

14 elkarrizketa

Maite Garcia

Baloretan hezitzea

19 Gehigarria

Ikasleak filosofatzen

27 Esperientziak

Donibane Lohitzuneko ihauteria berreskuratuz

29 Berriak

34 Ekarpena

Eredu euskaldunaren, D ereduaren, alde

35 Nazioartea

Atlantiar kresalaren bila Portugalera.

37 Praktikatzen

Zer da eskultura? (I)

Batasun didaktikoa

COUNCIL OF EUROPE-
CONSEIL DE L'EUROPE



Strasbourg
1996ko maiatzaren 22

Aldizkari honek "aipamen berezia" jaso du Europako Kontseiluaren "lurraldeen arteko lankidetzarako sustapena" programaren barruan.

hik hasi ez ditu bere gain hartzen laguntzaileek plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.



fundazioa
fundación

hik hasi

Irakasle

euskaldunon

aldizkaria

4.000 pezeta urtean

10 aldizkari eta prezio bereziak topaketetan eta argitaratzen ditugun gainontzeko materialetan

Zure partehartzea
ezinbestekoa zaigu

harpide zaitez!



hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoaz

Izena.....1. Deitura.....
2. DeituraTel.:.....
HelbideaPosta Kodea.....
Herria.....Herrialdea.....
Ikastetxea.....Herria.....
IFZ

Aurrezki Kutxa edo Bankua

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

Entitatea Sukurtsala K.D. Zenbakia

Sinadura

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne)

Hego Euskal Herria
4.000 pezeta
Ipar Euskal Herria
160 libera

hik hasi

Euskal
heziketarako
aldizkaria
Industrialdea, 2. Pabilioia
20.160

LASARTE-ORIA.
GIPUZKOA

Tel: 943/ 37 15 45
Faxa: 943/ 36 10 48

Hezkuntza osatzen dugun talde ezberdinen tresna eta topagune izan nahi dugu, horra orekarik emankorrena.

MARTXOA

e d i t o

r i a l a

B

a omen da gure herrian oso hedatua den joera, jardunaren poderioz zoritxarreko ohitura bilakatzen ari dena.

Mesfidantzak edo jakinminak, auskalo!, eraginda egitasmo, ahalegin, ideia, ekimen eta abar bakoitzaren atzean zein dagoen, norekiko joera ote duen, nor jipoitzeko prest ote dagoen jakin edo susmatu arte bakerik ez dago. Zenbat energia alferrik galdua eta zein espazio estua geratzen zaigun ekimenerako!

Eta noski zurrunbilo honetan inork ihesbiderik ez duenez, Hik Hasi ere hor izan dugu eta dugu identifikazioaren ikusmiran.

Zenbat buru hainbat aburu. Zein egia biribila. Susmoaren pean daude partaideak eta egitasmoa.

Batzuen ustez sindikatu baten bultzadaz sortua. Eta hala ere, langileen egoerari buruzko gabezia. Ikastolaren aztarnak nonahi ikusi eta Ikastolaren aldekoa ote den. Beste erakunde batzuen iritiz Publikoaren aldeko tratamendu gehiegi. Beste zenbait berriz ezetz, Pribadari tratamendu ona ematen zaiola eta Publikoari tamainan eman behar zaiola. Gure sorrera Oliveriren legealdiaren zehar izateak ere ez ote den kasualitate hutsa eta zalantzaren lurri-

nak harroturik Hezkuntza Sailaren babespekoak ote garelakoan daude beste batzuk.

Gure ibilbidea motza izan arren, dagoeneko sektore guztietatik sortuko litzaizkiguke babesleak. Babesleak baina kolaboratzaileak nahiago ditugunez, gure zereginetako koadernoan hobetu beharreko orrialdean zuen eskari eta iradokizunak jaso ditugu: gurasoen parte hartzea, euskal pedagogoen eskuhartzea, beste herrialdeetako informazio zabalgooa, langileen egoera, pluraltasuna, oreka...

Oreka da gure lehentasunetako bat, ez zalantzarik izan. Baina hain iritzi kontrajarrietatik ateratzen dugun ondorioa da, eta ez dugu uste inor ezustekoan harrapatuko dugunik, sektore ezberdinen artean dagoen desoreka.

Guri ere zaila egiten zaigu, ez ezazuela pentsa, baina gure ustez baliabide onena ipini dugu, horretan gaude behintzat. Orain arte gure eskuetara iritsi zaizkigun lan guztiak argitaratu ditugu, sinaduraren arabera bereizketarik egin gabe. Kezka eta zertan hobetu inguruko aholku asko jaso ditugu, eta eskertzen ditugu. Ezagutzen dituzue zein diren aldiakari honen helburuak eta zein den gure helmuga. Esateko eta irakasteko edozer duzuen guztiek zabalik daukazue orrialde hauetako ateak, denon artean Hik Hasi orekatuagoa egiteko.

*Zenbat
buru
hainbat
aburu!*



Aurrematrikulazio garaian “fundamentalismoaren” aurkako oihuak entzunez

k r o n



Amaigabeko nahastea

Hilabeteak joan eta hilabeteak etorri Esperanza Aguirrek ez du ahoa itxita egoteko intentziorik, ez. Asteburu batean Gasteizera etorri eta sekulakoak eta bi esanda bueltatu behar. Euskal gizartean “fundamentalismo eta dogmatismo handiegia” omen dago. Ez zuen zuzenean inor izendatu, baina bistakoa da euskal nazionalismoaz ari zela. Horrekin batera, Euskal Herriko historia eta Espainiakoa ez direla antagonikoak adierazi zuen, “elkartasunean eta proiektu amankomunean” oinarritutakoak baizik.

Ez dugu uste euskaldunok iritzi berekoak garenik eta Humanitateen gaia aztertzeko sortu berri den lan taldeko kideek horren alde egingo duten esperantza gelditzen zaigu. 30 kidez osatu da lan talde hau, sei Madrilgo Gobernuak izendatu ditu eta hezkuntza kompetentziak dituzten zortzi komunitateetako bakoitzak hiru hautatu ditu. Ekainaren 30erako DBHko Humanitateei buruzko txostena egin beharko dute. Txosten hau Bigarren Hezkuntzako ikasgai horiek indartzeko erabiliko da.

Bestetik, EAEn aurrematrikulazio garaia pasa berria da. 16.000 haur inguru hasiko da 1998-99 ikasturtean. Hauetatik %52ak eskola publikoa hautatuko duela aurreikusten da. Ereduei dagokienez, berriz, eskolan hasten diren haurren kopuru handiena D ereduan matrikulatzen da. Aipatzekoa da, era berean, EHEk A ereduaren aurka aurrera daraman kanpaina. A eredia ez dela legezkoa da bere mezu nagusia, eredu honek ez baitu legea betetzen, hots, A ereduko ikasleek euskara zein gaztelera menperatzea. Euskara ez jakiteak aukeratzeko askatasuna ukatzen du, beraz, ikasleen etorkizunean. Guk ere bat egiten dugu EHEn mezuarekin.

Lan legepekoen arazoak hor dirau

EAEko 337 irakasleren funtzionarizazio prozesuak oraindik ere kolokan jarraitzen du. Hezkuntzako lan legepekoen arazoa oraindik ez da bideratu. Inaxio Oliveri Hezkuntza sailburuak gogor kritikatu zuen PSOEek hartutako erabakia, hots, Auzitegi Konstituzionalera jotzearena. Oliveriren esanetan “Gasteizko Parlamentuaren legegintza gaitasunaren aurkako eraso da, eta ondorioz EAEko biztanleen ordezkarien borondate nagusiaren aurkakoa”.

Publikazio prozesua martxan jarri zenean, PSE izan zen lan legepeko irakasleen arazoa konpontzeke utzi zuena eta orain konpontzeko arazoak eta oztopoak jartzen ari dena.

Era berean, kaltetuek euren kezka agertu dute hezkuntza arloko arazo bat arlo judizialera pasa delako.

“Nire burutik hasita, espazioak euskaraz betetzen saiatzen naiz. Edozein kasutan ere, hori da egin dezakedana, egin nahi dudana eta niretzat zentzua duena”. (JON SARASUA)

i k a



LOGSEren egilea legeari buruz mintzo da

LOGSEren ezarpenak zeresan ugari eman du eta oraindik ere ematen ari da. Azken adierazpenak Alvaro Marchesirenak izan dira. Egun Madrilgo Unibertsitate Complutenseko katedratikoa den hau LOGSEren “aitatetako bat” izan zen, beste batzuren artean. Nafarroako Gobernuan Hezkuntza Sistema aztertzeko dagoen komisio parlamentario bereziaren laugarren sesioan hartu zuen parte Marchesik. Bertan LOGSE legearen ezarpena eta garapenari buruz duen iritzia plazaratu zuen.

Orokorrean ikuspegi positiboa duela adierazi arren, hiru arazo nabarmen ikusten dizkio Marchesik. Lehenengoa aniztasunaren trataerari dagokiona. Iaz UPN eta PSNk DBHn behar bereziak dituzten ikasleentzat talde bereziak sortzeko adostu zuten dekretuaren aurka

agertu zen. Tendentzia guztiz bereizgarria dela baieztu zuen eta ez dela inolaz ere onargarria.

Bigarren arazoa irakasleriaren motibazioa dela ihardetsi zuen. Eta hirugarrena, zentroen ebaluazioa.

Dena dela, arazoak aipatzeaz gain, irtenbide edo proposamenak egin zituen LOGSEren egile honek. Lehenengoari dagokionez, aniztasuna errespetatu egin behar dela esan zuen. Horretarako ikastetxeei baliabideak eskaintzeko ahalegina egin behar zaiela adierazi zuen eta era berean, ikastetxe bakoitza ere bere berezitasunen arabera tratatu behar dela.

Irakasleriaren motibazioari dagokionez, baliabideak, denbora eta prestakuntza aipatu zituen, baina baita mugikortasunaren eragozpena ere. Irakasleriaren egonkortasuna funtsezkoa da Marchesiren ustez. Hori lortzeko, alde batetik Administrazioak bere aldatetarik mugatu egin behar ditu, baina bestetik, irakasleriak ere leku aldatetarik ez eskatzeko konpromezua hartu behar du.

Zentroen ebaluazioari dagokionez, egin beharreko gauza dela azpimarratu zuen. Horretarako hiru modu proposatu zituen. Lehenengoa, zentroek beraiek autoebaluaketa egitea. Bigarrena, Administrazioak ebaluatzeko sareak aukeratu jartzea, hots, zentroen arteko ebaluaketak egitea. Eta hirugarrenik, Administrazioak berak egingo lukeena.

Proiektu berria martxan Donibane Garazin



Momentu honetan Donibane-Garaziko ikastolak eskualdeko 18 herritako 90 haur biltzen ditu. 1972an sortu zen 14 ikaslerekin eta lehen zortzi urtetan Donibane Garaziko eskola publikoaren gela batean egon zen. Ondoren, ikasle kopurua igoz zihoala eta, Lasara joan ziren orain dela 13 urte.

Hala ere, baldintzak ez dira batere onak eta horri aurre egiteko erabakia hartu dute gurasoek. Lur eremu zabal bat erosi dute eta hor ekingo diote erakin berria egiteari. Inbertsioa bere gain dago, baina dirulaguntzak eskatu dizkiote Estatuari, Eskualdeko Kontseiluari, Kontseilu Nagusiarri eta lurraldeko kolektibitatei.

Garapen Kontseiluak funtsezkoztat jo zuen barnealdeko ikastolen egoera hobetzea. Horien artean dago Donibane-Garazikoa, eta berarekin batera Donapaleun, Hazparnen eta Maulen.

Barnealdean dauden ikastolak ez dira ordea arazoak dituzten bakarrak. Mauleko eskola publikoaren etorkizuna ere kolokan dago. Zuberoako eskola txikiak ixteko asmoa du frantses administrazioak. Berak ezarritako kopurua baino haur gutxiago dituzten eskola publikoak ixteko planteamenduak egin ditu.

“Zuberoak bizi nahi du” aldarrikatuz 600 lagun bildu ziren Maulen burutu zen manifestaldian. Hogei bat auzapez eta zinegotzik parte hartu zuten bertan. Guztiak herriko eskolak mantentzearen alde daude, Zuberoa ez delako turistentzat bakarrik, bertako herritarrek ere hor bizi nahi dute.

GAIA

Hezkuntza koo

Joxerra ZUBIZARRETA
Hezibideko Komunikazio Arduraduna

Empresa eta ekonomia mailan kooperatibaz hitz egitea ohikoa da eta ez zaigu arrotza suertatzen. Baina antolaketa modu hori ez da sektore batzuetara soilik mugatzen. Edozein arlotarako balio du proiektu bat aurrera ateratzeko modu horrek.

Hezkuntza mailan ere ikastetxe ugari dira kooperatibak direnak. Hezkuntza Kooperatiba izeneko Federazioan biltzen dira. Federazio honen egitekoak eta nondik norakoak ezagutzeko asmoz Joxerra Zubizarreta Federazioko lehendakariarengana hurbildu gara.

Martxoaren lehen egunarekin batera, Hezkuntza Kooperatiben Federazioa sortu zeneko 8. urteurrena bete da. Kooperatiba egitura duten Euskal Herriko ikastetxeak biltzen dituen Federazioa da. Gaur egun 56 zentro daude bertan.

Joxerra Zubizarretak Federazioak adina urte daramatza lehendakari lanean eta ibilbide guztia ondo baino hobeto ezagutzen du.

Hezkuntza Kooperatiba, kolektibo batek proiektu baten alde egiten duen apustua dela dio, baina apustu kontzientea. "Kooperatiba ez diren zentro publiko eta pribatuetan ere badaude proiektu baten aldeko apustua egiten dutenak, baina beharbada batzuk ez kontsekuentekei, baizik eta besterik gabe hautaketa bat egin dutelako. Adibidez, haurra herriko eskolara erama-



peratibak

tea” azaltzen digu Joxerrak. “Gure kasuan, berriz, apustua norberak egiten du, bazkide izan behar delako. Orduan, bazkidea izatean ardura handiak hartzen dituzu. Zentroaren gestio osoak zure baimena behar du hori aurrera eraman ahal izateko”.

Inplikazioa baino gehiago zerbaiten aldeko apustua dela dio Joxerrak. Apustu hori gurasoek, langileek edota biek egin dezakete eta horretan datza koooperatiben arteko desberdintasuna.

Langileen kooperatibetan irakasleak dira proiektua aurrera ateratzeko apustua egiten dutenak. Trabajo asociado-koak bezala ezagutzen dira hauek. Gurasoen kooperatibetan, berriz, gurasoak dira alternatiba baten aldeko apustua egiten dutenak eta gestio osoa beraien arduraren gaitzen da. Azkenik, kooperatiba integralak daude eta hauetan guraso, irakasle eta gainerako langileak dira bazkide. Guztiek kontsekuenteki egiten duten apustua dela dio Joxerrak. “Gurasoen kasuan esaterako, seme-alabak zentro hauetako batera eramatea erabaki dezakete, jakinda bihar edo etzi batzorde edo errektore kontseilu batean egon beharko dutela agian. Horrez gain, urteko batzar batean gestio ekonomikoa, pedagogikoa eta abar onartu beharko dituzte. Beraz, ardura zuzena eskatzen du. Eta honek dexente bereizten gaitu beste zentroetatik, nahiz eta egunerokotasunean antzekoak izan”.

Hezkuntza Kooperatiben Federazioan dauden 56 zentrotatik %60 gutxi gora-behera gurasoen kooperatibak dira, %30 integralak eta %10 langileenak. Orokorrean Hezkuntza Sistema osoa harturik, kooperatibak %40 direla esan daiteke, baina datu hau ez da errealia. Izan ere, Hezkuntza Kooperatiben Federazioan ikastolak, euskaltegiak, A

eta B ereduko zentroak, Lanbide Heziketa zentroak eta abar daude. Bakoi-tzak, koooperatiba izateaz gain, bere esparru propioa dauka. “Adibidez, Eskoriatzako Almen ikastola kooperatiba da eta Ikastolen Federazioan dago. Baina era berean, bailara hartako Hezibide elkartean dago; eta ikastola denez, Partaideren barruan dago. Horrelako kasuak ematen dira Federazioan dauden zentro gehienetan, eta horregatik diogu %40ko datu hori ez dela errealia”.

Zentro hauek guztiak batzen dituen, beraz, izateko forma da, ez egiten dutena, direna baizik. Federazioaren batzordean talde horiek guztiak biltzen dira (AEK, Partaide, Hezibide, EIB, Hetel...). Hezkuntza eta lan munduko talde desberdinak mahai batean biltzea eta guztien artean gaiak eztabaidatzea, sakontzea eta erabakitzea da interesgarria, dio Joxerrak. “Orain

“Hezkuntza Kooperatiba, kolektibo batek proiektu baten alde egiten duen apustua da, baina apustu kontzientea”



modan dagoen “hirugarren bide” hori orain dela zortzi urte jarri genuen martxan guk. Eta harro nago urte hauetan guztietan ez dugulako inoiz botaketarik egin. Beti adostasunera iritsi gara”. Pedagogikoki planteamendu desberdinak eta muturrekoak eduki ditzakete, baina denak kooperatiba dira eta horrek batzen ditu.

“Arlo pedagogikoa ez dugu inoiz ukitu oso garbi izan dugulako hasieratik gure federazioaren izateari ez zegokiola. Gure lana egitura kooperatiboa sendotzea eta gizartean isladatzea da; zer den eta nola funtzionatzen dugun azaltzea. Enfoke enpresariala ematen diogu, gestioko gauzak egiten baititugu”.

Federazioaren funtzioa

Zertarako sortu zen Hezkuntza Kooperatiben Federazioa? Kooperatiba mota asko daude gaur egungo gizartean eta legeak jasotzen ditu, gainera. Orain dela zortzi urte, ordea, hezkuntza arloko kooperatibak trabajo asociado edo kontsumoko kooperatibak bezala agertzen ziren, eta ez zuten esparru propioirik. Kooperatiba ziren ikastetxeak kontzertatuak zeuden eta bazuten tratamendu berezia, baina ez kooperatiba zirelako. Behar horrek bultzatuta sortu zen Federazioa. “Guretzat oso garrantzitsua zen gure bereiztasunei egokitutako esparru propioa edukitzea. Edozein araudi fiskaletan Hezkuntza Kooperatibok geure tratamendu propioa edukitzea ahalbidetzen zuen horrek”. Oraintsu EAEn atera diren araudietan Tratamendu Berezikoko Kooperatibak bezala agertzen dira eta



askoz ere emaitza hobeak lortzeko bidea ematen die.

Hori izan zen Federazioak egin zuen lehenengo lana. Hori lotuta dago gainera, hasierako helburua. Hots, egitura juridikoa indartzea eta kooperatiba izatearen zentzua indartzea, berpiztea eta bultzatzea. "Izan ere, kooperatiba izan arren, gutxi ziren horren kontzientzia zutenak". Beraz, lehenengo egitekoa gauzak argitzea izan zen. Hasiera hartan bi kooperatiba mota zeuden: gurasoena eta langileena. Langileen kooperatiba gehienak aurretik pribatu izandakoak edo krisi baten ondorioz kooperatiba bihurtutakoak ziren. Hauek lehendik ere nahiko antolaketa egituratua zeukaten. Baina gurasoen kooperatibetan nahaste-borraste ikaragarria zegoela gogoratzen du Joxerrak. Argitze lan honekin batera ikastolen publikazio garaian ere gauza asko taxutu behar izan zituzten.

Zeregin hauetan Alfonso Gorroño-goitiak laguntza handia eman diela azpimarratu nahi izan du Joxerrak. "Mondragon Kooperatiba esperientziaren sortzaileetako bat da eta orain Kooperatiben kontseiluan trabajo asociado-ko kooperatiben ordezkari gisa dago. Hezkuntza Kooperatibok liturgia kooperatibo asko ikasi behar genuela zioen. Alegia, gure organoek funtzionatzeaz gain, kooperatiba izate horretan bete beharra zeuden paper guztiak betetzea". Adibidez, ordurarte zenbait zentrotan errektore kontseilua berriz-

tatzen zen, baina ez zekiten kooperatiba erregistroa zegoenik eta aldaketa guztien ondoren izen berriak bidali behar zirenik legezatzeko. Beraz, era honetako liturgiak ikasi beharra izan dute: zer erregistratu behar den, batzarrak egiteko deialdiak nola egin...

Liturgia hauekin batera, Federazioak estatutuak egiteko eredu batzuk egin ditu, erregistrotik pasata eta adostuak daudenak. "Horrela, kooperatiba bakoitzari bere lana errazten diogu, eredu hauek erabil ditzaketelarik".

Kooperatiben abantailak?

Hezkuntza Proiektu batean zentroa kooperatiba izateak abantailak dituen ala ez ezin dela neurtu dio Joxerrak. "Nik ezin dezaket esan kooperatibak inguruko eskola publikoak baino inplikatuago gaudenik. Hori ezin da neurtu. Argi daukadana zera da: kooperatibetan dugun egoera askoz ere militanteagoa dela".

Izan ere, gaur egungo hezkuntza munduaren funtzionamendua ikusita, bi alternatiba daudela dio Joxerrak: oso zentro pribatua izatea, kuotak jarri eta

"Gure lana egitura kooperatiboa sendotzea eta gizartean isladatzea da; zer den eta nola funtzionatzen dugun argitzea"

horien kontura bizitzea. Edota administrazioak ematen duen dirulaguntzatik bizitzea kontzertu bidez.

Ondorioz, kooperatibek nahitaez behar dute arrakasta izan iraun ahal izateko. Horrek bertako langileen profesionaltasuna dakar eta baita inplikazioa ere, bai gurasoena eta baita langileena ere. Apustu bat egin dute eta inplikazioa da bermea. Baina inplikazioarekin batera nolabaiteko militantzia sortzen dela dio Joxerrak. "Nik uste dut kooperatiba batean zaudenean ezin dituzula gauzak nola edo hala erabaki. Adibidez, beste zentro batzutan sarritan baratze ekologikoa eta antzeko beste proiektuak martxan jarri eta probatu egiten dira. Kooperatibetan, berriz, garatu behar diren proiektuak partaideen batzarrean adostutakoak izan behar dute. Irakasleok ez dakit zer marabilla egitea pentsatzen badugu ere, alferrik pentsatuko dugu errektore kontseiluan aurkezturik ez badago, beronen onarpenik ez badu eta batzar nagusian ere onartu gabe badago. Irakasle zein gurasoon interesak adostasun batera iritsi behar dute".

Prozesu guzti honek kultura bat ematen du eta hori da kooperatibak duen abantaila lehendakariaren iritziz.

Boletina eskura

Iazko apirilean Hezkuntza Kooperatiben Federazioak boletin bat argitaratu zuen. Harrezkero, hiru hilabetetik behin kide diren zentro guztietara iristen da. Boletin honen funtzioa informazioa eskaintzea da. Alde batetik, Federazioren gestio planen eta ekintzen berri ematea. Bestetik, momentuan sortzen diren gaiak lantzea. Eta azkenik, Federazioko zentroak aurkeztuz joatea.

"Gure arazorik handiena ikastetxeko egunerokotasunean sartzea zen. Larria den zerbait baldin badute Federaziora jotzen dute, baina bestela ez". Horrek lotura edo jarraikortasun falta dagoela agerian uzten du, eta horregatik erabaki zuten boletina ateratzea. Zuzendaritzari eta lehendakariari ez ezik, batzordekide guztiei zuzendua dago denei erantzunak emateko helburuarekin.

Umezaintza Haur-Eskola



Arrasate kooperatibismoaren sehaska izan da Euskal Herrian. Kooperatiba diren lantegi asko daude, eta hezkuntza zentro gehienak ere kooperatiba dira. Batzuk hasieratik halaxe sortuak, eta beste batzuk eboluzio baten ondoren bihurtuak. Umezaintza Haur Hezkuntzako zentroa, esaterako, kooperatiba moduan sortu zen hasieratik. Baina gaur egun 200 ikasle eta 22 irakasle-langile dituen zentro honek historia berezia duela esan genezake. Arantxa Lejarraga zuzendariak eman digu horren berri.

Nola sortu zen Umezaintza?

Hasieran Auzolagun kooperatibaren barneko zerbitzu bezala sortu zen, 1970. urtean. Bizpahiru urte lehenago sortu zen Auzolagun eta emakumeak ere hasi ziren lanean bertan. Orduan arazo bat sortu zitzaion: non utzi haurrak lanean zeuden bitartean?

Araza irtenbidea emateko asmoz Auzolagunek berak haurtzaindegi zerbitzua sortu zuen, Umezaintza, alegia. Beraz, kooperatiba bezala sortu zen, baina Auzolagunen barruan, irakasle langileak Auzolaguneko bazkideak ziren.

10 urte igaro ondoren, Auzolagunetik bereiztu egin zireten. Zer dela eta?

Auzolagunen barruan egonik, guraso-

ek ezin zuten bazkide izan. Bestetik, gero eta gorputz handiagoa hartzen ari zen haurtzaindegia eta entitate propioa behar zuela ikusten zen.

Hamar urte horietan eboluzio bat egon zen eta haurrak zaindu soilik ez zirela egiten ikusi genuen, hezi ere egiten genituela. Orduan, irakasleriok magisteritzako titulua atera genuen eta heziketa horretan guraso eta familiaren partehartzea beharrezkoa zela ikusi genuen. Beraz, azkenean guraso, langile eta bazkide kolaboratzaileek osatutako kooperatiba integrala sortu genuen.

Zein ziren bazkide kolaboratzaileak?

Auzolagun eta inguruko beste kooperatibak. Bestalde, haurren guraso gehienak kooperatibetan lan egiten zutenak ziren.

Auzolagunetik bereizterako garaian, zergatik hautatu zenuten kooperatibaren eredia eta ez beste bat?

Egia esan, kooperatiba eredia ez zen inoiz ere zalantzan jarri. Auzolagunen barruan zegoenean langileak ziren bazkideak eta guraso zein kolaboratzaileek ere bazkide izan behar zutela ikusten zen, hots, gestioan parte hartu behar zutela. Orduan, antolaketa hori posibilitatzen zuena kooperatiba zen.

Gurasoen parte hartzea da eredu honek dakarren berrikuntzeta-ko bat. Zenbaterainoko garrantzia ematen diozue horri?

Handia, dudarik gabe. Familiak garrantzi handia dauka haurren hezkuntzan. Azken finean, familia bakoitzak daki zer motatako hezkuntza nahi duen bere seme-alabentzat eta beraiek ere gestioan eta gobernu organuetan parte hartu behar zutela argi genuen.

Pedagogikoki zer eragin izan du kooperatiba integral bezala funtzionatzeak?

Nire ustez lehenengo hamar urtetan pisu askoz handiagoa eman zitzaion haurtzaindegi zerbitzuari, hots, haurrak zaintzeari. Gero berriz, haurraren garapenerako lehen sei urteak benetan garrantzitsuak direla ikusi da. Bizitzaren lehen sei urtetan oinarritzen dira geroko garapen guztiak.

Orduan, hezkuntza eta zentroaren hezkuntza proiektuan horri eman behar zitzaion garrantzia, nahiz eta gero familiaren erosotasunerako beste zerbitzu batzuk eskaini.

Baina lehen gure estatutuetan entitatearen helburua bazkideen haurrak zaintzea baldin bazen, kooperatiba integrala bihurtu ginenean helburua haurraren heziketa bihurtu zen. Umezaintza heziketa zentroa da eta ez haurtzaindegia soilik.

Orokorrean gainontzeko haurtzaindegiekin ere eboluzio hau eman dela uste al duzu?

Bai, nik uste dut baietz. Orokorrean denak haurtzaindegi izatetik heziketa zentro izatera pasa gara. Haur Hezkuntzako zentroak bihurtu gara gizartearen eboluzioak eta kanpoko eskakizunak eraginda.

San Viator Ikastola



Arrasatetik irten gabe San Viator ikastolara goaz. Hau ere kooperatiba da, baina ez bere sorreratik. Esther Merinori galdetuko dizkiogu ikastola honen ibilerak zein izan diren.

Kooperatiba bihurtu aurretik, zein motatako ikastetxea zen San Viator?

Fraileen ikastetxea zen, zentro pribatua. Titularitate akademikoa viatoristek zeukaten.

Noiz bihurtu zen kooperatiba?

1980-81. ikasturtea kooperatiba

bihurturik hasi genuen. Baina aldaketa ez zen bat-batean gertatu. 1978. urtean hasi zen hausnarketa prozesua.

Zer dela eta hausnarketa prozesu hori? Aldatzeko beharra ikusten al zen?

Egia esan, herriari begira bai, moldatzeko beharra ikusten zen. Badakizue Arrasaten kooperatibismoak indar handia izan duela. Bestetik, San Viatorrek beti ahalegin handia egin du herriari momentu bakoitzean behar zuena emateko. Ahalegin horretan beste ikaste-teeekiko elkarlanerako pausoak ere ematen hasi zen. Momentu hartan, monjen ikastetxea salbu, beste guztiak kooperatibak ziren. Hauekin lanean hasteko eta herriko eskaerei egokitze-ko, San Viatorren izaera aldatu beharra zegoela somatu zen. Beraz, aldaketa herrian zegoen mugimendu horretan sartzeko bidea zen eta horrek bultzata bihurtu zen San Viator kooperatiba.

Viatoristen jabetza nola moldatu zen kooperatiba horretan?

Kooperatiba integrala sortu zen, hau da, langile, guraso eta bazkide kolaboratzaileez osatutakoa. Beraz, lehen viatoristek zuten ikastetxearen titularitate akademikoa kooperatibaren esku gelditu zen. Viatoristak kooperatibaren bazkide izatera pasa ziren, bazkide kolaboratzaile gisa.

Jabetza aldaketarekin batera, barne antolaketa ere moldatu beharko zenuten.

Bai, halaxe da. Barneko organuetan estamentu guztien parte hartzea zabaldu zen. Asanblada da organu gorena eta estamentu guztiak ordezkaturik daude bertan. Organu exekutiboa errektoretza batzarra da eta hor ere hiru bazkide taldeak daude.

Pedagogikoki aldaketarik nabaritu al duzue?

Beno, egia da azken urte hauetan ikastola pedagogikoki aldatu dela, baina ez dakit kooperatiba bihurtu delako edota egokitu diren garaiak direlako. 1981ean kooperatiba bihurtu zen, 1985ean euskaduntze prozesua jarri zen martxan... aldaketa asko eman dira eta denak jarraian. Baina nik ez dakit kooperatiba bihurtze-egatik eman diren edo bestela.

Urretxu-Zumarraga Ikastola Elkarte



Urretxu-Zumarraga ikastola langileen kooperatiba da 1995. urteaz geroztik. Hasiera batean Guraso Elkarte baten ere, orain dela hiru urte eman zuen aldaketa hori. Gaur egun, ikastolako gerentea den Patxi Olabarriarekin aldaketaren zergatiaz eta prozesuaz mintzatu gara.

Urretxu-Zumarraga ikastola 1995ean bihurtu zen kooperatiba, zergatik aldaketa hori?

Garai horretan publiko-pribatu erabakia hartu behar hura eman zen. Hezkuntza Saileko sailburua zen Buesaren aldetik datu guztiak ez ziren argi agertu eta gauzak horrela, guk pribatu gelditzeko erabakia hartu genuen.

Dena dela, egoera ez zen batere leuna eta ekonomikoki gauzak ez zihoazen ondo. Dirua galtzen hasi ginen eta plangintza berria burutu genuen. Egoerari buelta eman behar genion, eta horretarako, kooperatiba bihurtzea zen irtenbidea.

Kooperatibismoaren barnean aukera desberdinak daude. Zein ikusi zenuten egokiena zuen kasurako?

Kooperatiba integrala. Langileok langabeziatik jasotzen genuena jartzen genuen eta gurasoek ikastolaren ondarea. Kooperatiba guraso eta langileen artean gelditzen zen.

Zer aldaketa suposatzen zuen horrek?

Legalki eta kanpora begira kooperatiba moduan funtzionatzea suposatzen zuen. Barne funtzionamenduari zego-kionez, ez zen gauza handirik aldatzen. Baina azkenean ezin izan genuen hori egin.

Zer dela eta?

INEMek baldintza bat jarri zigulako: lehen jabeak izandakoek ezin zutela kooperatiba horretan jarraitu. Beraz, lehen Guraso Elkarte zenez jabea, gurasoek ezin zuten jabeak izan kooperatiban. Ondorioz, ezin genuen kooperatiba integrala sortu eta azkenean langileen kooperatiba eratu genuen.

Orduan, langileen kooperatiba bihurtzeko, gurasoek euren ondareari uko egin beharra izango zuten.

Bai, halaxe da. Gurasoek ondasunak gure eskuetan utzi beharra izan zuten, guri saldu ziguten ikastola. Guk, langabeziatik jaso genuenarekin ordaindu genien.

Erantzunkizun handiena langileen esku gelditzen da, orduan. Gurasoak ez al ziren kanpoan sentitu?

Ez, ez zen horrelakorik gertatu. Azken finean, nahiz eta legalki kooperatiba bihurtu, barne funtzionamenduak berdin jarraitzen baitu. Urteko batzarrak, balantzeak eta abar guztion artean egiten dira. Titularrak langileok gara eta agirien kontu guztia geuk eraman behar dugu. Baina gainontzean, elkarrekin gaude orain ere.

Gurasoek zuengan konfidantza handia jarri zutela ondoriozta daiteke.

Bai, hala da. Prozesua ez da borondatezkoa izan, behartua baizik. Gure kasuan, langileok kolektibo bezala hartu dugu gure gain egoera eta gurasoek ere beste irtenbiderik ez zegoela ikusi dute. Elkar-konfidantza izugarria egon da.

Aldaketa honek guztiak ondorio pedagogikorik izan al du?

Ez, irakasleria kezkatu baina lasai egon zen aldi berean. Gainera, prozesu osoa kontrolatuta eduki genuen eta aldaketa nagusienak opor garaian egin genituen.

Aldaketa nabarmenena ikastetxearekiko ikuspegiarena izan da. Orain enpresaren ikuspuntu gehiago dugu, balantzei eta pezetari gehiago begiratzeko diegulako. Lehen, berriz, ez ginen horrelako arazoez kezkatzen. Diru publikoa jaso eta horrekin konpontzen ginen. Hau behar dugu eta lortu egiten genuen. Proiektu pedagogikoak zuen lehenetsia eta nagusitasuna.

Eta orain, alderdi ekonomikoari garrantzi gehiago emateak, ez al dio alderdi pedagogikoari kalte-rik egiten?

Horrelakorik ez gertatzeko oreka bilatu behar da, hor dago gakoak. Irakasleok gure egoera aztertu behar dugu. Egoera ekonomikoa hain ona ez bada, ondorio pedagogikoak gure gain hartu beharko ditugu, bestela proiektua arriskuan jar liteke epe ertain batean. Garrantzitsua irautea eta proiektuari eustea da. Gauza berriak egin ditzakegu, baina ongi neurtuta. Ikuspegi honetatik da ikastola enpresa, eta ekonomiak frena izan behar du oreka lortzeko.

Orain arte oreka falta egon da egoera ekonomikoa ona zelako, behi lodien garaian geundelako.

Iraun ahal izateko kooperatiba bihurtzeak, dena ekonomikoki neurtu beharra izateak, enpresa ikuspegi nagusitzeak eta abar ahalegin izugarria eskatzen du. Merez al du?

Bai, dudarik gabe. Ikastolaren proiektua mantentzearen egin ditugu aldaketa guztiak. Horregatik bihurtu ginen kooperatiba, ikastola eta gure hezkuntza proiektuak iraun dezan eta hobetu dezagun. Hori da benetako arrazoia eta aurrera jarraitzeko motiboa.

Ander Deuna Ikastola



Sopelako Ander Deuna ikastola kooperatiba integrala da gaur egun. 1993. urtean, publiko-pribatu aukeraren artean ikastola pribatu izaten jarraitzeko apustu garbi eta sendoa egin zuten. 1995. urtean beste gogoeta bat egin zuten eta horren ondorioz bihurtu ziren kooperatiba 1996an. Imanol Igerabide zuzendariak prozesu osoa gertutik ezagutu zuen.

Zein izan zen 1995ean kooperatiba bihurtzera bultzatzen zuzendariak?

Garai hartan gure ikastola guraso kooperatiba zen. Guraso zein langileok inplikazio altua geneukan gure hezkuntza proiektu propio eta berezian. Emaizta aldetik ere pozik geunden, baina bi hutsune nabaritzen genituen: alde batetik, ekonomikoki egoera kezagarria geunden eta bestetik, arlo pedagogikoan geneukan partaidetza konpartitua gestio eta antolaketa eremuan ere behar genuela somatzen genuen.

Bi hutsune hauek bideratu asmoz, partaidetzaren babes juridikoa

planteatu genuen eta hori kooperatiba integralak eskaintzen zigula ikusi genuen.

Zeintzuk dira nabaritu dituzuen aldaketa nagusienak?

Bi izan dira nagusiki. Alde batetik gestio-gintzako inplikazioa. Lehen erabakiak hartzea gurasoen eskuetan zegoen eta orain langileek ere parte hartzen dute. Beraz, gestio-gintza gertutik ezagutzeko aukera eman digu.

Bestetik, funtzionamendu aldetik erabateko gardentasuna lortu dugu. Erabaki nagusi guztiak guraso eta langileen artean eta adostasunez hartzen dira. Adibidez, erabaki batzuetan gehiago sinplea lortzea nahikoa izaten da, eta beste batzuetan, berriz, juntakideen 2/3 lortu behar da. Gorengo organu guztiak parekideak dira. Eta hauek partaidetza ere orekatua da.

Gestio-gintzaz gain, beste arloetan nolako eragina izan du?

Beno, pedagogikoki gauzak ez dira asko aldatu. Lehen ere partaidetzaren tradizioa oso zabaldua genuen eta alde horretatik berdin jarraitzen dugu.

Honen guztiaren oinarrian kooperatibismoa dago. Alde horretatik, kooperatibistak sentitzen al zarete?

Sentimendu eta ikuspuntu aldetik desberdintasunak egon daitezke. Arrasate inguruan, adibidez, tradizio handia du kooperatibismoak. Guretzat, ordea, kooperatiba hezkuntza arloko helburua lortzeko tresna izan da. Hala ere, sentimendu hori barneratu gabe eduki arren, partaidetza beti izan da gure hezkuntza proiektuaren zutabeetako bat.

elkarriketa

MAITE GARCIA

“Guraso eta irakasleen inplikazioak erabatekoa izan behar du haurrak baloreetan hezitzeko”



Maite GARCIA

Baloreak ditugu aipagai Maite Garciarekin. Irakasleentzako irakaslea eta psikologoa den emakume hau baloreen inguruan hitz egitera dator. Gai honen inguruan hausnarketa eta lana egina du eta bere esperientzia zabaltzarekin batera, gu ere hausnarketa bat egitera gonbidatzen gaitu. Tolosako Laskorain ikastolak antolatutako "Baloreetan hezitzea, guztion zeregina da" hitzaldian gonbidapen hori luzatu zuen.

Lehenengo eta behin, baloreez hitz egiten hasi aurretik, zer ulertu behar dugu balore bezala?

Hasteko, nik bi gauza argituko nituzke. Alde batetik, baloreak erlijioarekin soilik erlazionatzen dira askotan. Baina nik giza baloreez hitz egiten dut. Gizatiarrak dira gizakion bizitzan edozein momentutan agertzen direlako. Bestetik, sarritan pentsatzen da baloreak heziketan irakastera etortzen direla, inposatuta, autoritatez ("adoctrinamiento" bezala). Horregatik, batzuk baloreetan hezitzea gaizki ikusten dute.

Nik bi ikuspuntu hauetatik ez ditut balore kontsideratzen eta gaur egungo gizartean oinarritutako baloreez hitz egiten dut.

Beraz, hori argituta, balorea gauzei jartzen diegun ezaugarri edo kualitate bat dela esango nuke, gauza horiek zaletasuna edo gaitzespena jaso dezaten. Aurrean jartzen zaigun edozer gauza, ekintza edota ideia baloratu egiten dugu beti eta etengabe erabakiak hartzen ditugu. Erabaki horietan baloreak daude eta baloreen arabera erabaki bat edo bestea hartzen dugu. Baloreek ezin dute inposatuak izan,

norberak askatasunez aukeratuak izan behar dute.

Erabaki hitza askotan errepikatu duzu. Zergatik?

Garantizatua eta frogatua dago haurrak baloreetan hezitzea nahi badugu, baloreak aukeratzeko gaitasuna lortu behar dutela. Horretarako dilemak sortu behar zaizkie, arazoan aurrean jarri hausnar dezaten, zalantzak izan ditzaten eta erabakiak har ditzaten. Hausnartzeko eta pentsatzeko aukerarik ematen ez badiugu, 15 urtetara iritsi eta gauzak arau bat edukiko balute bezala egingo dituzte, ez dute ezer planteatuko.

Erabaki bat edo bestea hartzerakoan aurretik izandako esperientzia kontuan hartuko dugu. Gure historia pertsonala da gure balore sistema eraikitzen joan dena, eta horrek egituratzen du gure nortasuna.

"Ama, aita edo gertuko hezitzailearen irudia oso garrantzitsua da baloreak transmititzerako orduan"

Baloreak nortasunaren islada direla esan nahi al duzu?

Bai, pertsona baten nortasuna, beste faktore batzuen artean, balore multzo baten islada da. Adibidez, pertsona batek besteekin egotea baloratzen badu, besteekin atsegina izaten saiatuko da. Eta pertsona hori soziablea edo sinpatikoa dela esan dezakegu. Dazkagun baloreek gure erabakietan eragina dute eta horiek osatzen dute gure nortasuna.

Gaur egun asko hitz egiten da baloreez. Modan dagoelako izango al da?

Ez, ez da orain sortu den zerbait eta modan dagoena. Beti hezi izan dugu baloreetan, baina ez gara kontziente izan. Orain, ordea, kontzientzia hartu dugu eta zein balore dauden, zeintzuk bultzatu nahi ditugun eta zeintzuk alboratu nahi ditugu aztertzen hasi gara. Hor sortu da aldaketa. Kontzientzia hartu, hausnartu eta aztertu egiten dugu orain eta hor dago diferentzia.

Zergatik uste duzu kontzientzia hartze hori orain gertatu dela eta ez lehenago?

Gizartearen garapenarekin lotua egon delako. XX. mendera arte gizartearen aurrerapenak ez ziren mende honetakoak bezainbestekoak izan. Industrializazioarekin batera, ordea, sistema ekonomikoa, antolaketa eta abar aldatu egin dira eta horien eragina nabaritzen da gizartean.

Hainbeste aldaketen aurrean jendeak balore desberdinekin egiten du topo eta agian horrek nahasten du. Egoera berrietara moldatu beharra dago eta egoera honetan, jendeak balorerik ez dagoela uste du, baina hori ez da egia. Gertatzen dena da lehenengo baloreak ez daudela mugimendu handia sortu delako.

Beraz, balore sistema berrantolatu egin behar da. Zein gizarte mota daukagun ikusi eta gizarte honetan ongien bizitzen lagunduko diguten baloreak zein diren aztertu beharko dugu.

MAITE
GARCIA

e

“Baloretan hezitzeak bai guraso eta bai irakasleoi pertsona bezala inplikatzeari eskatzen digu”

Baina nola berrantolatu behar dugu baloreen sistema?

Bada, minimo batzuetan ados jarri behar dugu. Etica del minimo deritzona, hau da, nik gauza bat pentsatzen dut, zuk beste bat eta hark beste bat. Baina elkarrekin bizi behar dugu gizarte honetan eta beraz, zerbaitetan ados jarri beharko dugu. Zertan? Zer da oinarrizkoa? Hori da erabaki beharrekoa eta orduan sortzen dira Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala, Konstituzioa...

Hezkuntza mailan zein izango litzateke oinarrizko deklarazio hori?

Beno, LOGSEren erreforma izan liteke. LOGSEk gizarte berri eta anitz honek eskatzen duena jasotzen du: minimoetako etika hori aurrera eramango duten pertsonak prestatzea gizarte honetan bizi ahal izateko, elkar ulertuz. Horretarako haurren nortasuna bere gaitasunekin batera lantzeari ematen dio garrantzia.

Hezkuntza Erreformaren oinarria eta funtzio nagusia haurren heziketa integrala da, nortasunaren prestakuntza. Hortxe dago hezkuntza mailako aldaketa.

Orain arte prestakuntza akademikoa beste guztiaren gainetik zegoen. Eskolaren ardura haurrak lanerako edo gizarterako prestatzea zen eta gurasoak zeregin horretatik at zeuden. Baina orain, zentroek nortasunaren heziketa ere bere gain hartu behar dute.

Zeregin berri horretan, zer landu behar dugu, zein esparru?

Hiru esparru landu behar ditugu:

1- Haurrak pertsona bezala munduan bizitzeko hezi behar ditugu beraien nortasuna osorik garatuz.

2.- Elkarbizitzen ikasi behar dute ingurunearekiko sentikorrak eta harkorrek izanez.

3.- Pentsatzen eta ikasten ikasi behar dute, jasoko dituzten informazio eta datuak moldatu ahal izateko.

Hiru gune hauek izango dira eskolaren lanaren oinarri. Gaur egun kalita-

tezko irakaskuntza eskaini nahi duen ikastetxeak hiru elementu horietan zentratuta egon behar du. Garrantzitsuak dira, hori delako haurren heziketa integrala ematen duena.

Horrek zertan aldatzen du eskolaren funtzioa?

Lehen eskola gizartearen erreproduktzioa egiteko zegoen, eta ez hainbeste haurrak pentsatzen, sentitzen eta esaten zuena berregiteko. Azken finean, gizartetik behar ziren elementuak hartu eta horietatik igortzen ziren gizarte bera berreraikitze.

Orain, ordea, eskola aldatzen ari da. Badaki aldatzen ari den etorkizuneko prestatu behar dituela haurrak. Nortasuna, prozedura, gaitasuna, baloreak landu behar ditu, osatuagoa da.

Beraz, aldaketa zera da: heziketa integrala dela orain ardatz. Zertarako? Ingurune kontestuz hausnartzeko eta erabaki orekatuak hartzeko gai izan daitezen.

Zentro bakoitzak bere Hezkuntza Proiektua egiten du. Nolako ikasleak hezi nahi dituen, halako proiektua izango da. Bultzatu nahi dituen baloretan oinarritutakoa, alegia. Eta ondoren, proiektu curricularra eta eguneroko heziketa lanak horretan oinarrituta egongo dira, proiektuan hartutako erabakiaren isla izan beharko dute.

Baina haurren nortasunaren heziketa familiarri ere badagokio. Orain ez da dena irakasleentzako eskuetan geldituko, ezta?

Ez, noski. Gainera, irakasleek ere laguntza behar dute horretarako: ikasle kopurua egokiak, aholkularitzarako denbora, gurasoekin egoteko denbora...

Horrez gain, eskola eta familiarren arteko elkarlana funtsezkoa da. Sekula baino beharrezkoagoa da bien arteko harremana. Biak haurren nortasunaren prestakuntzan zentratu egongo dira.

Zeren haurra lagun, kalearen,

komunikabideen eta abarren eragina jasotzen ari da, eta ikastetxea eta familia izango dira jasotzen duen guztiari zentzua bilatzen lagunduko diotenak. Adibidez, eskola eta familia etxearen oinarria egiteko izango dira (zutabeak), eta gainontzekoek etxe horrek forma bat edo bestea hartzerakoan eragina izango dute. Baina oinarria eskola eta familian dago.

Zehaztuko al zeniguke bien arteko elkarlan hori nola gauza daitekeen?

Bi gauza hartu behar dira kontuan. Alde batetik, gurasoek zentroa aukeratzeko honetako duen Hezkuntza Proiektua aintzat hartu beharko dute. Proiektu hori eraiki nahi diren pertsona moten arabera moldatzen da, balore batzuk defendatzen direlarik. Beraz, guraso bezala, zentroak defendatzen eta lantzen dituen oinarrizko baloreak eta beraienak berdinak izatea komeni da. Norabide bera izatea eta proiektuan parte hartzea garrantzitsua da.

Bestetik, ikastetxearekin batera lan egitea funtsezkoa da. Eskoletan jende espezializatua dago. Seme-alabekin landu nahi ditugun oinarrizko baloretan nola lan egin behar dugun orientatuko gaituzte. Positiboa izango da abstraktuak diren balore horiek praktikan nola jar daitezkeen ikustea eta horretan lagunduko digute espezialista horiek.

Horrez gain, eskola eta familiaren arteko kolaborazioak haurrari buruz daukagun informazioa alderatzeko balioko du. Haurraren inguruan lagunak, kalea, telebista... daude eta beste-lako faktore hauek eragina izan dezakete. Informazio kontrastatu horrek pistak emango dizkigu irakasleoi zein gurasoei haurrak hobeto ezagutzeko.

Familiaren papera ez al da orain arte baino aktiboagoa?

Egia esan, familian ez da gauza askorik aldatzen. Ez da ahaztu behar familia haurraren nortasunaren eraketarako lehen entitate dela. Familia da, lehen eta orain, afektibitatearen bitartez



haurrari lehen mezuak ematen dizkiona; nolakoa den, zertarako den gai, eta autonomia eta autoestimaren lehen sentimenduak igortzen dizkiona. Paper hori hor dago eta ez zaio kendu.

Gertatzen dena da, lehen familia ez zela hain kontziente egiten zuenaz. Familiak erantzunkizunaren baloreak lantzen zituen bereziki eta eskolak akademikoak. Orain ere familiak baloreetan lan egiten jarraitzen du, baina horretaz kontzientzia hartuz.

Eskola eta familiaren zeregina pertsona integralak sortzea da. Hau da, bizitzen, elkarbizitzen, pentsatzen eta ikasten jakingo dutenak. Zein balore landu behar ditugu hiru helburuok lortzeko?

Ez dago baloreen hierarki edo aukeraketa finkorik, baina haurraren nortasunaren prestakuntza integrala lortzeko batzuk egokiagoak dira. Helburu bakoitzarentzat balore batzuk aipatuiko nituzke:

1.- Bizitzen ikasteko, hau da, pertsona horrek oreka psikologiko bat lortzeko, bere nortasunaren garapena lortzeko:

- autoestima: pertsona bakoitza bakarra eta aberatsa dela baloratzea. Nork bere burua maitatzea.
- autonomia: defendatzeko eta arazo-iei irtenbidea bilatzeko gai izatea.
- autokontrola: ezetz esaten jakitea.
- sormena

- optimismoa

- .../...

Balore hauek bizitzen ikastearekin lotuta daude eta oso garrantzitsua da argi edukitzea helburu hori lortzen lagunduko digutelako.

2.- Elkarbizitzen ikasteko, hots, besteekiko harkorra eta sentikorra izateko:

- errespetua
- tolerantzia
- elkartasuna
- harremanetan jartzen jakitea
- .../...

3.- Pentsatzen eta ikasten ikastea. Ikasteari ekiteko gaitasunari lotuta dauden baloreak dira hauek:

- motibazioa
- iraunkortasuna
- kritika konstruktiboa egiteko gai izatea
- .../...

Azken finean, gure haurren heziketa integralerako oinarrizkoak diren baloreak dira, bai maila pertsonalean eta baita gizarte mailan ere. Hiru gune horiek dira haurrekin praktikan jartzen has gaitzkeenak.

Non gelditzen dira justizia, berdintasuna edo askatasuna bezalako baloreak?

Horiek landu nahi baditugu, lehenengo aipatutakoak barneratu behar ditugu. Bestela, etxea teilatutik erakitzen hasia litzateke. Indibidualetik

MAITE
GARCIA



“*Beti
hezi izan
dugu
baloreetan,
baina orain
hartu dugu
horren kon-
tzientzia*”

hasi behar da sozialera joateko. Zergatik? Gizartea indibiduo osaturik dagoelako eta indibiduo horien kalitatearen arabera izango da gizartea.

Ideal bezala hor egon behar dute berdintasuna, askatasuna, justizia... baina behetik hasi behar dugu.

Hala ere, nola eraman behar ditugu praktikara gure egunerokotasunean oinarritzko balore horiek?

Alde batetik, adinaren inguruan sorzen dira kezka. Sarritan baloreak gaitasun etikoari eta moralitateari lotutako zerbait direla pentsatzen dugu, eta haur txikiek ez dituztela ulertuko. Baina ez da horrela zehazki.

Nik uste dut garrantzitsua dela argi edukitzea hurrek aipatu ditugun oinarritzko balore horiek txikitatik jasotzen dituztela modu batera edo bestera. Hasieran ez dute aztertze gaitasunik eta arau bezala hartzen dituzte. Baina igortzen zaiona baino, garrantzitsuagoa da hori nork igortzen ari zaion. Horregatik, aita, ama edo gertuko hezitzailearen irudia oso garrantzitsua da baloreak transmititzeko orduan.

Bestalde, kontuan eduki behar da baloreak ez daudela prozesu lojiko eta arrazionalari lotuta. Zerbait intuitiboa, emozionala dira. “Ez dakit zerga-

tik, baina gustatu egiten zait” esaten dugu askotan, ez dakigu arrazionalki justifikatzen. Alde afektiboari oso lotuta daude eta hori aintzat hartzea garrantzitsua da.

Izan ere, baloreak jakituriaren bidez transmititzea ez da nahikoa. Beste elementu bat behar da: ereduak ikustea. Autonomia izan behar duela esatearekin ez da autonomia izango, bere inguruan pertsona autonomoak ikusi eta sentitu beharko ditu haurrak. Baloreak ez dira demostratzen, ikusi, eta nabaritu baizik. Eta hori, afektiboki lortzen da.

Beraz, gure inplikazioak erabatekoa izan behar du.

Bai, hala da. Bai irakasle eta bai gurasooi pertsona bezala inplikatzeko eskatzen diegu. Hori ez da erraza eta askotan ez gaude prest. Norberarekiko hausnarketa bat egitea suposatzen du lehenengo eta gauza asko zalantzan jarriarazten ditu. Ondoren, guraso eta hezitzaile bezala hausnartu beharra datorrigu.

Baloreekin lan egitea konplexua baina bizigarria da, eta aberastasun personal handia ematen du. Badakizu ereiten ari zarela, eta modu bakarria dela gero uzta jasoa izateko.



GEHIGARRIA

hik hasi

euskal
heziketarako
aldizkaria


26

ikasleak
filosofatzen

Almen
Ikastolako
esperientzia

Ikasleak filosofatzen

Almen ikastolan ikasleak 6 urterekin filosofatzen hasten dira



Eskoriatzako Almen ikastolan ikasleak 6 urterekin filosofatzen hasten dira. Haurrentzako Filosofia, Erlijioarekin batera, ikastetxeak eskaintzen duen ikasgaia da. Ikasleen heziketa soziala eta morala garatzea du helburu eta, bide batez, pentsaera kritikoa eta hausnarketa bultzatzea.

Inguruan dagoen esperientzia bakanenetakoa da Almen ikastolan daukaten ikasgai hau. Arantxa Etxeberria da Haurrentzako Filosofia ikasgaiaren arduraduna. Berak azaldu digunez, ikastetxeak aukera bi eskaintzen ditu: Erlijioa eta Haurrentzako Filosofia.

Azken ikasgai honekin bi helburu garatu nahi dira. Alde batetik, ikasleen heziketa soziala eta morala. Eta bestetik, pentsaera kritikoa eta hausnarketan hezitzea. "Jakintzagai honen bidez, errealitatea eztabaidatzeko, galderak egiteko, eta nork bere kabuz pentsatzeko gaitasuna landu eta garatu

"Jakintzagai honen bidez, errealitatea eztabaidatzeko, galderak egiteko, eta nork bere kabuz pentsatzeko gaitasuna landu eta garatu nahi da"

nahi da". Pertsona kritikoak, irekiak, arrazoidunak eta gogoeta egiteko gai direnak hezi nahi dira, bizi duten errealitatea eztabaidatu eta eraldatzeko gauza izango diren ikasleak.

Ikasgai honekin Erreformaren ondoren hasi dira. Arantxak azaldu digunez, "Erreforma aztertzen hasi ginenean, Erlijioari zein irtenbide eman eztabaidatzen hasi ginen. Denentzat zabalduzako zerbait eskaini behar genuela ikusten genuen eta proiektu honekin egin genuen topo. Oso aberatsa zela iruditu zitzaigun".

Filosofatzeko metodologia

Ikasgai honen oinarrian ikasleen arteko elkarriketa, hausnarketa eta iritzien azalpenak daude. Horretarako, ikasgela ikerketa komunitate batean bihurtzen da. "Guztiak ipuin bat irakurtzen dute eta ondoren ikasle bakoitzak bere galderak planteatzen ditu. Gero galdera guztiak irakurtzen dira eta interesgune desberdinen arabera multzokatzen dira". Galdera horien inguruan sortzen da eztabaida eta ikasleek euren iritzi eta ikuspuntuak azaltzen dituzte. Partehartze honekin gauza desberdinak lortzen dira:

- Besteei entzuten ikastea.
- Besteen iritziak eta norberarenak kontrastatzea.
- Nork bere pentsakera besteen laguntzarekin eraikitzea.
- Besteei arrazoiak eskatzen ikastea.
- Nork bere ideiak garatzea besteei komunikatzerakoan.
- Nork bere iritziak arrazoitzea.
- Besteen ideiekiko irekia izatea, ulertu eta errespetatzea.

Galderen haritik planteatutako eztabaidarekin eztabaida filosofikoa gara-

tzen da. Horixe da garrantzitsuena gainera, eztabaidatzea, eta ez ondorio zehatz batzuetara iristea. Egoera eta arazoan aurrean zergati sakonak bilatzera bultzatzen da. Iritzi ezberdinetara zabaltzen dira, baina jarrera kritikoz arrazoiak eskatuz eta zergatiak bilatuz.

Haurrentzako Filosofia programa 6 eta 18 urte bitarteko ikasleentzat prestatu dute. “Haur Hezkuntzan ere lantzen dute zenbait lekutan, baina guk oraindik ez dugu planteatu”. Programa osoaren oinarri ipuinak dira, baina maila bakoitzean adinaren ezaguerriak kontuan hartzen dira. “Ipuinak ikasleen adinari egokituak daude eta ikasleek gertutik bizitzen dituzten egoera eta arazoak biltzen dituzte” dio Arantxak.

Materialaren osaketa

Programa garatzeko ipuin eta material hori irakasleek beraiek osatu beharra izan dute. Izan ere, euskarazko materialik ez zegoen eta gaztelera zein ingelesez itzuli eta moldatu dute. “Jende askori iruditu zaio interesgarria proiektua, baina materiala atzerriko hizkuntzan egoteak bidea zaildu du. Guk, ordea, erronka bezala planteatu genuen materiala euskarara itzultzea”. Ordutik hona, pixkanaka-pixkanaka ipuinak itzuliz joan dira, eta hemendik urte pare batera argitaletxe batek argitaratuko ditu.

Itzulpenean ipuinetako pertsonaien izenak ingelesez mantendu dituzte, baina egoerak gure gizartera egokitu. Guztira sei sekuentzia banatu dituzte adinaren arabera:

- “Kio eta Gus”, Lehen Hezkuntzako 1. ziklorako, 6-8 urtekoentzat. Munduaren pertzepzioa edo oharrena da aztertzen den gai nagusia.

- “Pixie”, Lehen Hezkuntzako 2. ziklorako, 8-10 urtekoentzat. Hurrek inguruko mundua esplikatze orduan sentitzen duten nahasmena hartzen da abiapuntu gisa.

- “Harry”, Lehen Hezkuntzako 3.

ziklorako, 10-12 urtekoentzat. Ikerketa komunitate baten bitartez, logikari buruz egiten duten azterketa da. Proiektuaren gai zentrala da.

- “Lisa”, DBHko 1. ziklorako, 12-14 urtekoentzat. Nerabetasunaren ikuspegitik aurkitzen den mundua azaltzen da.

- “Mark”, DBHko 2. ziklorako, 14-16 urtekoentzat. Ikastetxean sortzen den gatazka puntu bat hartzen da oinarritzat.

- “Felix eta Sofia”, Goi batxilergorako, 16-18 urtekoentzat. Nerabetasuneko problematikak lantzen ditu.

Material honetan oinarriturik lantzen da Haurrentzako Filosofia. Aran-

“Eurak hausnartzeko gaitasuna izatea lortu dugu, edozein gatazkaren aurrean gauzak ulertzeko beste modu bat dute, beste jarrera bat”



Arantxa ETXEBERRIA

txaren iritzi “Erljioa edo Etika baino ikasgai osatuago da eta fruituak ematen ari da. Ikasleak gauzak kuestionatzen ikasten ari dira, besteen ideiekiko errespetua erakusten, hitz egiterakoan txandak errespetatzen, arrazoitzeko gaitasuna hartzen... Poliki-poliki diferentzia ikusten ari gara. Eurak hausnartzeko gaitasuna izatea lortu dugu, edozein gatazkaren aurrean gauzak ulertzeko beste modu bat dute, beste jarrera bat”.

Irakaslearen zeregina

Dударик gabe, haurrak dira protagonista ikasgai honetan, baina irakasleok ere badugu geure zeregina eta funtzioa. Ikasleei interesatzen zaizkien gaiak buruzko eztabaidak erraztu behar ditugu. Ez ditugu adoktrinatu behar, ez diegu geure iritzia eman behar, euren hausnarketa bultzatu baizik. Garrantzitsuena ikasleen partehartzea, errespetua eta tolerantzia da, eta horiek zainduz, ikerketa komunitatean beraien ideiak ematera eta berriak eraikitzea animatu behar dira ikasleak. Azkenean, esaten dutenaren inplikazioak eta ondorioak ezagutarazten ere lagundu behar diegu.

Esperientzia praktikoa

DBHko ikasle talde baten esperientzia

Jarraian DBHko ikasle talde baten esperientzia jaso dugu. Hauek Haurrentzako Filosofia Programa 96-97 ikasturtean jaso zuten lehen aldiz. Aurten, berriz, 2. mailan daude. Hasierako saioetan batez ere galderak egiten, eztabaidan txandak egiten eta iritziak errespetatzen ikasi zuten. Orain, oster, eztabaidarako arauak barneratuak dituzte eta elkarrizketak sakonagoak dira. Prozesua ikusiz eta aztertuz aldaketa hori nabaritu dugu.

1.- "Lisa" nobelaren I. kapituluko 2. pasartea

Ikerketa komunitate bat zer den eta eztabaidetan nola jokatu behar duten ikastea zen helburua.

Hona hemen kapitulua eta ikasleek ateratako galderak gero eztabaidatzeko.

Harry gogoetan galdera baten esanahiaz

- Aita -esan zuen Harryk.
- Mmmmmmm -erantzun zion aitak.
- Aita, zer da galdera bat?
- Zuk egin didazuna.
- Bai, badakit galdera bat egin dizudala, baina hau ez da egiten ari nintzaizun galdera.
- Eta zein da, bada, egin didazun galdera? Jira eta bira gabiltza, Abbot eta Costello bezala. Nor da lehena?
- Aita!
- Zer?
- Benetan ari naiz. Zer da galdera bat?
- Zergatik jakin nahi duzu?
- Aita, hori soberan dago. Zer axola dio zergatik jakin nahi duan? Jakin egin nahi dut, eta kitto!
- Zu beti ari zara zergatiak galdetzen. Zergatik ezin dizut zuri zergatik galdetu?

- Aita, galdetu dizudana gauza erraza da, eta zu jira eta bira zabiltza. Galdera bat egiten dugunean zer gertatzen den jakin nahi dut, besterik ez.

- Erantzun dizudala uste dut.
- Erantzun didazula? Zuk ez didazu erantzun, zuk galdera-pila egin didazu, besterik ez.
- Ez nuke hainbeste galdera egin beharrik izango, erantzun batzuk jakingo banitu.
- Eta nik galderak zer diren jakingo banu, agian ez nituzke hainbeste egingo.
- Zer diren jakingo bazenu, are gehiago egingo zenituzke beharbada.

- Aita.

- Hmmmmmmmmmm?

- Jakin nahi nuke oraindik.

- Galdera zer den, ala galdera egiten dugunean zer gertatzen den?

Harryk estu eta larri ematen zuen. Aitak bizkarra uzkuritu zuen.

- Tira, lehenengo gauza bat galdetu didazu eta gero bestea; nola erantzungo dizut, bada, galdetutakoari mila buelta ematen badiozu?

- Konforme, zer gertatzen da galdera bat egiten dugunean?

Arando jaunak ezpainak estutu eta gogoeta egin zuen:

- Galdera bat egiten duzunean, nola sentitzen zara?
- Nahastuta.
- Eta afaltzeko ordua denean, nola sentitzen zara?
- Gose. Oi, orain ulertu dut zer esan nahi duzun. Gose garenean, naturalki, zer jana bilatzen dugula esan nahi duzu, eta nahastuta gaudenean, naturalki, erantzunak.
- Beraz, erantzunak bilatzea janaria bilatzea bezain naturala da.
- Harry zoruan luzatu zen, aitaren besaulkiaren ondoan.
- Horrela izango da agian, baina galderak egitea eta erantzunak bilatzea gauza bera dela esan nahi al du horrek?
- Arando jaunak buruari eragin zion:
- Nik ez dut horrelakorik esan.
- Orduan, zer da galdera?

- Harry, euli zorabiatua ematen duzu; burrunbaka ibiltzen zara inguruan euli zorabiatua bezala.

- Agian eulia ez dago zorabiatuta, agian zerbait galdetu nahian ari zaizu. Edo agian problemaren bat du -eta gero galdetu zuen-: Hori esan nahi al didazu, problemak dauzkagulako egiten ditugula galderak?
- Guk dauzkagu problemak ala problemek gauzkate gu?
- Oi, aita, Jainkoarren! Noiz hartuko duzu benetan?
- Benetan ari naiz.
- Tira, zein da galderaren eta problema-
ren arteko erlazioa?
- Zein da icerberg eta iceberg-puntaren arteko erlazioa?
- Iceberg-punta ikusten duguna da. Gainerakoa urpean egoten da.
- Orduan, ezin al da zure galdera hori problemaren "punta" izan?
- Galdera nirea dela, baina problema ez?
- Ez.
- Orduan, norena da?
- Edonorena. Entzun, zuk batxilergoa burutua bazenu eta gero zer egin behar duzun garbi ez bazenu, galduta egongo zinateke eta galderak egingo zenituzke. Baina langabezia badago, horra hor problema bat, baina ez da justu-justu zure problema. Horregatik esan dizut zuk ez daukazula problema, baizik eta problemak zauzkala zu.
- Hortaz, galderak egiteko arrazoia, erantzunak lortzea baino gehiago problema zein den jakitea da, ezta?
- Arando jaunak irribarre txiki bat egin eta buruaz baiezkoa egin zuen.
- Orduan, aita -berriro Harryk-, galdera bakoitzaren atzean problema bat badago, baieztape bakoitzaren atzean galdera bat dagoela esan nahi al du horrek?
- Harryren aitak ez zuen ezer esan. Harryk itxaron eta erantsi zuen gero:
- Eta era berean, problema bakoitzaren atzean zerbait dagoela esan nahi al du horrek?
- Hori da -erantzun zion Arando jaunak-, misterioa da.

Kapitulu hau irakurri ondoren galdera hauek egin zituzten ikasleek:

- 1 - Zergatik dugu interesa gauzak jakiteko?
- 2 - Zergatik egiten ditugu galderak?
- 3 - Zer da galdera bat?
- 4 - Zertarako balio dute galderak?
- 5 - Zer da problema bat?
- 6 - Zer pasatzen da problemekin?
- 7 - Galdera bat zer den ez badaki, nola galdetzen du?
- 8 - Nola sentitzen gara galdera bat egitean?
- 9 - Zein arrazoigatik egiten ditugu galderak?
- 10 - Arando jauna gai al da galderei erantzuteko?
- 11 - Galdera baten ondoren beti al dago erantzuna?
- 12 - Zertarako jakin nahi zuen zer zen galdera?
- 13 - Ondo al dago aitak erantzun ziona?
- 14 - Galdera baten atzean beti problema bat al dago?
- 15 - Zein arrazoi dago galdera bat egiteko?
- 16 - Nola sortu zen galdera?
- 17 - Gehiago jakiterakoan galdera gehiago egiten dira?
- 18 - Galderarik egon ez balitz, orain dakiguna jakingo al genuke?

2.- Aurrerago, 2. hiruhilabetean eztabaidatzeko giroa eta arauak landuagoak zeudenean, prozesu osoa lantzen hasi ginen.

Sintesiei garrantzia ematea eta lantzea zen helburua.

Hona hemen ikasle berberekin landutako Lisaren II. Kapituluako 4. pasartea.

Guridi jauna iritsi

- Nola esan duzu izena?
- Guridi jauna -erantzun zion Maddik, arrautzari gatz pixka bat bota eta mahaiatz bestaldean gosaltzen ari zen Iñigori imintzio bat eginez.
- Bai, hori abizena... baina bataio-izena?
- Uste dut Henry duela, edo horrelako zerbait.
- Arraioa! -Iñigok irribarrez-. Mikel Guri!

Horrelaxe ezagutu zuten ikastetxean Guridi jauna. Udazkenean, eskolak hasi zirenean, laguntzaille modura sartu zen.



Geroxeago, Mendiaratx jauna gaixotu zenean haren ordeko bihurtu zen.

Gizon gaztea zen, begi urdinak zituen eta ilea azenario-kolorekoa. Normalean, kolore biziko jaka eramaten zuen eta eskoziar praktikak. Guridi jauna gutxitan ibiltzen zen normal: lasterka ibiltzen zen korridoreetan, gorbata aske eta jaka airean. Ikastetxean arazoren bat zegoen momentuan eta lekuan, han agertzen zen berehala Guridi jauna.

“Hori ez da arazoa!” esaten zuen, armazoirik gabeko betaurrekoen atzean begiak dir-dir zituela. Di-da, hantxe bertan erabakiren bat hartu eta bizkor konpontzen zen arazoa. “Arazoak konpontzea da nire eginkizuna”, esan ohi zuen.

Guridi jaunaren konponbideetako batzuk eraginkorrak izaten ziren, eta beste batzuk ez.

Arte-klaseko ikasleak mural handi bat egin nahi eta non eginik ez zutelako kexatu zirenean, biltegiko jabearekin adostu zuen murala egiteko pareta bat utziko ziela. Eta neska batzuek entrenamendu-talde bat osatu nahi izan zutenean, eskolak bukatzean haiek entrenatzen hasi zen, eskualde-mailako txapelketetan lehiatzera iritsi ziren arte. Baina ikastetxeko ordutegian aldaketaren bat egiten zuenean, erabateko nahastea sortzen zuen: ikasle batzuek aldi berean bi lekutan egon behar zutela agertzen zen eta beste batzuek inon ez. Beste gertakari gogoangarri bat, eskolako teilatuan galipotageruza berria jartzeko irakasle eta ikasle osaturiko taldea sortu zueneko izan zen. Bolondres haiek galipota gehiago bota zuten beren buru gainera teilatura baino.

- Orain zuek eta Mikel Gurik behar duzuen -esan zion Maddik Iñigori, arratsalde hartan etxeratu zenean -lumak dira.

Jakina, Guridi jaunak ahal zuen guztian aldaketak egin nahi zituen ikastetxean, eta laster zabaldu ziren esamesak haren arrakasta eta porrotei buruz. Aldi baten ondoren, Guridi jauna kondaira zen errealtatea beste.

- Zer egin behar ote du, inguruko guztia aldatu ala? -galdetzen zuen Randyk amorratuta.

- Arrazoi duzu -esaten zuen Ainarak; gauza guztietan, ongi ala gaizki egon, muturra sartu behar horrek. Ezin al du ezer bakean utzi?

- Horrek egin nahi dituen gauza asko, aspaldi eginak egon behar zuten- protestatu zuen Iñigok.

- Bai -erantzun zion Randyk-, baina Mikel Gurik uste du gauza batek denbora luzea badarama ongi funtzionatzen, akatsen bat izan behar duela derrigorrez.

- Zuk aztura jakin batzuk badituzu, porrot egin duzula esatea bezala da- erantsi zuen Amaiak.

- E! -xuxurlatu zuen Garbiñek-. Entzun al duzue azkena?

Iñigo ere hurbildu zen Garbiñek kontatu behar zuena entzutea, nahiz eta jakin txutxu-mutxuren bat zela. Garbiñek esan zuenez, eskolazainak Guridi jaunari kexatu omen zitzaion ikasleek paperezko toailak komun-zulora botatzen zituztelako; haiek butxatu egiten omen ziren eta urak gainezka egiten. Pixka bat hausnartu ondoren, Guridi jaunak eskolazainei alanbrezko saskitxoak egiteko iradoki omen zien, gauza arrarok hodietara iritsi ez zitezten. Amaiari barrealdi zoroa sartu zitzaion, baina Iñigok esan zuen marmarka:

- Konforme, mutilak, barre egiozue, nahi baduzue; baina onartu behar duzue dena

kilikagarri bihurtzen duela. Aski da bera ikasgelan agertzea, eta mundu guztia gogoa berotuta jartzen da. Bat-batean dena bihurtzen da egingarri.

Egun batzuk geroago, Guridi jauna ikasgelan agertu zen bat-batean.

- Talde honi buruz hitz egin didate -esan zion Goenaga jaunari-. Hauek lan polita ari direla egiten entzun dut -eta ikasleengana zuzenduz, erantsi zuen-. Zer da justu-justu egiten ari zaretena? Esango didazue?

- Oi! -esan zuen Lisak lotsatuta-, zera imajinatu nahian ari gara... alegia, nola pentsatzen dugun ulertu nahian ari gara.

- Ongi dago hori -erantzun zion Guridi jaunak-. Eta hemen asko pentsatzen ari zaretenez, ikastetxean aldatu nahiko zenituzketen gauzei buruz ere pentsatuko duzuela espero dut.

- Zoragarria litzateke hori! -oihu egin zuen Iñigok.

- Ez, batere ez -erantzun zion Randyk.

- Guridi jauna -esan zion Harryk-, pentsatzea zer ote den aritu gara pentsatzen, baina ez dugu pentsatu zuk aipatzen dituzun gauza horiei buruz. Agian pentsatu beharko genuke, ez dakit. Baina... nondik hasiko ginateteke?

- Has zaitezte niregandik -esan zion Guridi jaunak-. Ez zait axola. Nire lan egiteko modua kritikatu nahi baduzue, entzutea gustatuko litzaidake.

Inork ez zuen ezer esan. Guridiren bekainak altxatuta zeuden.

- Harrituta nago, eztabaida bizi-bizia espero nuen, batez ere, talde honetan.

- Niri zerbait gaizki iruditzen bazait, hori gaizki dagoela esatearen aurka ez nago -esan zuen halako batean Harryk-, baina hau ez zait iruditzen hasteko erarik egokie-na.

- Kritikatu aurretik, arazoa zein den jakin behar da -esan zuen Lisak.

- Horixe -erantsi zuen Gontzalek-, eta ez gaude ziur arazoa zein den.

- Ederki, aurki ezazue, orduan! -bota zien Guridi jaunak-. Ordu hau libre duzue, erabil ezazue gaizki dagoena aurkitzeko, eta horrela hobetuko dugu ikastetxea.

- Hori esan nahi al zenuen? -galdetu zion Franek.

- Bai, noski; besterik ez dut esan nahi izan -atean geratu zen-. Pentsatu inguruan duzuenaz. Ez izan eskuak zikintzeko beldur.

Gero, jiratu eta alde egin zuen.

- Hori ote zen bere asmoa? -galdetu zuen Franek.

- Ziur aski, bai -xuxurlatu zion Iñigok.

- Ez, ez dut uste -esan zuen Iñakik-. Isti-luren bat sortuko du eta ez du jakingo nola konpondu. Lehen hobeto geunden, hobeto nola pentsatu aurkitu nahian. Honek guztiak ez digu ezer onik ekarriko.

- Goenaga jauna -esan zuen Ainhoak-, zuk zer uste duzu?

Galdera hark Goenaga jauna ikaratu egin zuela ematen zuen.

- Tira, Ainhoa, zeuen artean hitz egin duzuenaz zer pentsatzen dudan esan nahi baduzu, horren alde nago. Agian aurkituko duzue loturaren bat pentsatu eta sinestearn artean, edo horrelako zerbait.

- Iruditzen zait -esan zuen Harryk-, joketarako arauak ditugula, eta bizitzeko ideiak ditugula. Uste dut gure ideiak arauak bezala direla egin, esan eta pentsatzen dugunerako. Horregatik behar ditugu ahalik eta ideiarik onenak.

- Nik ez nuen hori galdetzen -esan zuen Ainhoak-. Goenaga jauna, nik esan nahi nuena zera da: ea zer pentsatzen duzun Guridi jaunak eginarazi nahi digunaz.

Goenaga jaunak estu eta larri zirudien.

- Ez dakit zer esan, Ainhoa, benetan ez dakit. Alde batetik ados nago eta, bestetik, ez.

- Jakina! -esan zuen Harryk-. Badira gauza batzuk egin beharrekoak agian, baina horiek egiteko era egokiak eta desagokiak ere badira.

- Utz dezagun horretan: era batzuk ego-kiagoak dira beste batzuk baino -esan zuen Goenaga jaunak.

Baina azken hitza Randyk esan zuen:

- Guridi jauna indar handiegiz sartzen da. Ez nuke haren iradokizuna ezertarako kontuan hartuko.

Handik laster, itzuli egin zen Mendiaratx jauna eta zuzendari-lanak berreskuratu zituen.

- Iruditzen zait Mikel Guri bere lehengo lanera bidaliko dutela -esan zuen Iñigok.

- Ez -erantzun zuen Franek-, hori ez da nik entzun dudana. Beste ikastetxe batera aldatuko duten zurrumurrua dabil.

Baina ez zuten ikastetxez aldatu, kanpora bota baizik.

Iñigo txundituta gelditu zen. Biharamu-nean, proposamen bat egin zuen ikasgelan. Mikel Guri zergatik bota ote zuten eztabaidatzea nahi zuen, eta bertara itzultzeko zerbait egin ote zitekeen. Proposamen hari Iñigok zera erantsi zion: Mikel Guriri gelara etortzeko esatea, bere ikuspegia eman zezan.

- Esan zuen ikastetxea hobetuko genuela, gaizki dagoena kritikatzeko bagenuen -berri-ro Iñigok-. Tira, oraintxe daukagu zerbait praktikoa egiteko aukera. Geure ikastetxea da. Azter dezagun zer gertatu den.

- Ez ergela izan, Iñigo -protestatu zuen Maddik-. Ez da gure arazoa. Ikastetxearen funtzionamendua ikuskatzeko batzorde bat sortu nahian ari bazara, baliteke beste batzuek ez ulertzea zertan zabilzan.

Harry nahiko kezkatu zegoen artean.

- Maddik arrazoi duela uste dut. Lehenengo, eta "geure mesederako" horretaz ez hitzik egiteko esango digute, eta gero, bada-kizu, "geure mesederako" horretaz ez pentsatzeko. Izutu egiten nau.

- Ez dakit bat-batean zergatik zaudeten guztiok hain urduri -esan zuen Randyk-. Ez gaitu inork isilaraziko eta pentsatzea galaraziko. Baina, Goenaga jaunak dioen bezala, praktikoak izan behar dugu -eta gero erantsi zuen-. Gainera, nori axola zaio guk zer esan edo pentsatzen dugun? Zer egiten dugun, horrek balio du.

Ordubeten hura igaro zen, baina ikasgelan eztabaidaturiko gaia berehala zabaldu zen ikastetxe osoan. Mendiaratx jauna kargua uztera behartzeko exijitu zuela Iñigok, edo Goenaga jaunak ikasleak bultzatu zituela Mikel Gurirekin zer gertatu zen aztertzerako: horrelako zurrumurruek zabaldu ziren ikastetxean.

Orduan, Goenaga jaunari Mendiaratx jaunaren bulegora dei egin zioten.

Gelan ateratako galderak hauek izan ziren:

- 1 - Pentsatzeak izutu egiten al du?
- 2 - Guridi Jauna ikastetxetik botatzea legezkoa da?
- 3 - Pentsatzen duguna esateko esku-biderik ba al daukagu?
- 4 - Ideiak arauak al dira?
- 5 - Pentsatzen duguna esateak balio al du?
- 6 - Guridi Jaunak egiten zuena ondo al zegoen?
- 7 - Ikasleek eskolako arazoetan sartzeko esku-biderik ba al dute?
- 8 - Ongi al dago gustatzen ez zaiguna kritikatzeko?
- 9 - Zergatik ez zuten Guridi Jauna kritikatzeko?
- 10 - Zergatik daude Guridi Jaunaren alde?
- 11 - Ikasleek euren irakasleak eta zuzendaria hauta al ditzakete?

12 - Arauak derrigorrezkoak dira?

13 - Kritikatu aurretik jakin behar al da zein den arazoa?

1, 3, 5, 8 eta 13 galderekin eginiko gelako eztabaidatik ikasle batek honako sintesia egin zuen:

Hasieran kritikak onerako zirela esan dugu, hauek pentsatzen laguntzen dutelako. Baina bukaeran kritikak onerako direla uste dut, baina lasai esanda eta besteak txarto hartzen ez badu.

Hau dela eta nire iritzia hau izan da: Kontuz esan behar da kritika besteari minik egin gabe.

Pentsatzen duguna esateko eskubidea dugu? Bai aukera dugu, baina sarritan beldurra ere badaukagu.

Batzuetan ez dugu gure iritzia ematen beste pertsonak txarto igaro dezakeelako.

Faltsuak al gara? Bai, adibidez irakasleekin, lagunekin, eta batez ere minik ez egiteko.

Nire iritziz pentsatzeko eta egiteko eskubidea daukagu, baina gero ondorioak jaso behar dira.

3.- DBHko 2. mailan "Lisaren" XI. Kapituluko pasartea irakurri genuen:

Aspalditxo gertaturiko gauzak gogoratu dituzte Lisak

Lisak eta aitak hosto-pila handia metatu

zuten. Une hartan eskuarean gainean zutik zeuden begira, nekatuta baina egindako lanaz harro.

- Gogoan dut nola laguntzen nion aitari hostoak biltzen, hemen, leku honetan bertan, zu orain egiten ari zaren bezalaxe -esan zion aitak Lisari-. Udazkeno, aitona ikustera landara joaten ginenean, lehengusu guztiak elkartzen ginen iluntzean. Sua egiten genuen, eta patata, sagar eta perretxikoak erretzen genituen. Uste dut patata sugarrastuen azala nuela gustukoena, baina... ondo gozoak ziren perretxiko erreak ere!

Hosto-pilari begira geratu zen Lisa, eta handik sagar handiak dirdiraz irteten eta alai sartzen imajinatu zituen, iluntzeko haizetxo freskotan, keak begiak erremintzen zizkion bitartean. Perretxikoa zeukan makila-puntan eta urre-kolore ederra hartzen ari zela ikusten zuen.

- Eta ezin al dugu guk...? -galdetu zion duda-mudan.

- Ezetz uste dut -erantzun zion aitak, galdera aurrez asmatuz-. Bada hemen lege bat hostoak erretzea debekatzen duena, airea kutsatzen duelako.

- Zuk eta zure lehengusuek ez bazenute hainbeste sagar erre su haietan, agian airea ez zen orain hain kutsatua egongo -erantzun zion Lisak maltzurki.

- Ba, ez harritu -baietsi zion aitak adiskidetsu.

- Hala ere, pozik egingo nuke sua -esan zuten Lisak hasperen eginez. - Suari begira egotea ezin da munduan beste ezerekin partekatatu. Ordu luzeak emango nituzke beheko suari begira, baina orain sekula ez dugu pizten. Zuk gauza hobeak zenituela iruditzen zait nire adinekora zinenean.

- Agian bai -onartu zion aitak-. Bitxia da, egun hauetan askoz maizago pentsatzen dut zure adineko nintzen garaietan, duela urte gutxi gertatu zaizkidan gauzetan baino -eta alabarengana jiratuz, galdetu zion-: Askok pentsatzen al duzu zuk aspaldi gertatu zitzaizkizun gauzetan?

Lisak barre egin zuen.

- Ez, nola pentsatuko dut, bada? Ez nintzateke ezertan pentsatzeko gai izango. Ez zait gertatu gogoratzea merezi duen ezer.

- Ederki -berriro aitak-, eta asko pentsatzen duzu etorkizunean?

- Ez, noski -berriro Lisak barrez-. Inozokeria da hori. Zergatik pentsatu beharko nuke? Eta zertan pentsatu? Ez dut ideiarik -gero serioxeago jarri eta esan zion-: Ondok pentsatuta, hori ez da guztiz egia. Batzuetan aspaldi gertaturiko gauzetan pentsatzen dut eta gerta daitezkeenetan ere bai, baina ez oso sarri.

- Handia izaten zarenean, zer izango zaren asko pentsatzen al duzu?

- Orain zer egin nahiko nukeen, horretan pentsatzen dut gehien, ez ondorengo urteetan.



Adibidez, dantza egiten jakin nahi dut, baina ongi, eta, hala ere, ez dakit hanka bat behar bezala mugitzen, eta neure buruari gorroto diot horregatik. Ikasgelan badituzte izugarri ondo dantzatzeko duten lagunak, baina ni oso traketsa naiz eta behaztopaka ibiltzen naiz batetik bestera.

Biek barre egin zuten eszena imajinatuz.

- Baina gogoratzen al zara txikia zinen garaiaz?

- Aita, nahi izango banu, gogoratuko nintzatekeela uste dut, baina, zertarako? Zergatik jarraitzen duzu galdezka. Ez dut ordukoaz oroitu nahi! -unetxo bat geroago, ez suminduta baizik eta txantxetan, hasi zen-. Gogoratzen dut ni lehenengo mailan nengoela andereño Margaritak ez zidala komunera joaten uzten, eta nire ondoan esertzen zen Ivan Arbulok eskua altxatu zuen, baina andereño Margaritak esan zion: "Ez, zu ere ezin zara joan!", eta orduan Bakerrek erantzun zion: "Ez, nik ez dut joan nahi, hau joatea nahi dut nik!" Orain barre egiten dut, baina urte askotan ikaragarritzko lotsa pasatu izan dut horretaz gogoratzen nintzen bakoitzean.

- Iritsiko da une bat gauza onak bakarrik gogoratuko dituzuna -esan zion aitak-. Niri orain gertatzen zaidan bezala.

Lisak sorbalda jaso eta hosto-pilara begiratu zuen, su handi bihurtuta ikusteko itxaropenaz, baina, harrirituta ohartu zen, Inigo agertzea eta pixka batean beraiekin hizketan egotea desiratzen zuela. Gero, bere gelan bakarrik zegoela, sabaira begira, non otzantzan begiratzen zion txerri baten poster handia baitzegoen josita, eta bere buruari galdetu zion ea zergatik etorri ote zitzaion bat-batean Inigori buruzko desio hura.

Gau hartan bertan, Lisak aitari galdetu zion:

- Suak debekatzen dituen legeari buruz egon naiz pentsatzen.

- A, bai? -esan zion aitak, liburua itxiz-. Lege hori bidegabea dela uste al duzu?

- Ez, inola ere ez. Esan duzu hostoz egindako suak airea gehiegi kutsatzen dutela, eta arrazoi hori aski da niretzat.

- Orduan, zein da zure arazoa?

- Zergatik ez dugu surik egin behar: ondorioengatik ala legeengatik?

Lisaren aitak bekosko iluna ipini zuen.

- Axola ez bazaizu, errepikatuko duzu esan duzuna?

- Tira, demagun ez dagoela legerik sua egitearen kontra. Hala eta guztiz, guztion ongizatea kontuan izanda, eta ez nork berea

bakarrik, ez genuke hostoekin surik egin behar, ondorioak kaltegarriak liratekeelako guztiontzat.

- Konforme.

- Baina besteren batek agian ez du surik egingo legeak debekatzen duelako, ezta?

- Horregatik eta ez ondorioengatik? Bai, gerta daiteke hori.

- Orduan, hona hemen nire galdera: nola erabaki behar dugu zerbait egin ala ez egin, izan ditzakeen ondorioengatik ala arauaren baten kontra egoteagatik edo ez egoteagatik?

Goitia jauna liburuaren azalari begira gelditu zen, aldi berean Lisaren galdera hausnartzen zuelarik. Gero esan zuen:

- Bi arrazoi horietakoren batengatik izan behar du?

- Ez dizut ulertzen -esan zion Lisak.

- Zera esan nahi dut, ezin al ditugu arauak eta legeak ere beren ondorioengatik epaitu? Ez zenuke esango suen aurkako lege bat izatearen ondorioak edozein ikuspegitatik ere hobeak direla ez edukitzearen ondorioak baino?

- Oi, aita! -protestatu zuen Lisak-. Erantzun ezin ditudan galderak egiten dizkida-zu etengabe.

- A, bai? -erantzun zion goxo-. Eta nor hasi da, bada, horretan?

Galdera hauek atera ziren:

1 - Nola erabaki behar duzu zerbait egin ala ez, bere ondorioengatik ala arauengatik?

2 - Etorkizunean pentsatzea ona da?

3 - Legeak beti errespetatu behar al dira?

4 - Legeak beharrezkoak al dira?

5 - Zein garai izan dira hobeak, gureak ala aspaldikoak?

6 - Zergatik gogoratzen ditugu gauza onak?

7 - Gure etorkizunerako prestatuak egoteak, etorkizun hobeak izango dugula esan nahi al du?

8 - Askotan iragana eta etorkizuna oraina baino hobeak iruditzen zaizkigu. Zergatik?

9 - Zergatik pentsatzen dugu etorkizunean?

10 - Etorkizunean egin behar dugu naz pentsatzen dugu. Momentu hori heldzean, batzuetan aldatu egiten dugu. Zergatik?

Hauetatik guztietatik eztabaidarako 5a. aukeratu dute.

Hemen daukagu ikasle baten sintesia.

Zein garai da hobe, lehenago edo orainago:

Gaur, lehen eta oraingo garaiei buruz hitz egin dugu. Esan denez, aurreko gizakiek ilusio gehiago zuten nahiz eta gauza asko ez izan. Gainera, beraiek, denbora libre gehiago zuten; orduko gazteek asko jolasten zuten eta gaurkoak asko ikasi behar dugu (ikastola, estraskolarrak...). Baina, honetaz guztiaz gain, gerrateen eraginez asko sufritu zuten. Bestalde, egia da lehen jende asko jaiotzen zela, baina baita hil ere, zeuden sendagai kalitate eta kopuruagatik. Beraz, bizitza laburragoa zen. Orain bizitza luzeagoa da baina askatasun gutxiago daukagu.

Bestaldetik, erosotasun gehiago ditugula esan dugu: autoak, jateko gehiago...

Hiru iritzi egon dira gelan:

1 - Lehenago garaia hobe zela, disfrutatzeko lekua eta denbora zutelako:

- Naturarekin harreman handiagoak. Kutsadurarik ez.

- Gutxiago ikasi behar eta gehiago jolastu.

- Askatasun gehiago.

- Familia lotuago.

- Ilusio gehiago.

2 - Orain hobeto bizi garela:

- Gauza asko daukagu (dirua, janaria, arropak...)

- Sendagai gehiago eta bizitza luzeagoa.

- Erosotasun gehiago eta lasaiago bizi gara.

3 - Ezin dela esan noiz bizi izan garen hobeto guk aurrekoa ez dugulako ezagutu.

Nire iritziak, lagun batek arrazoia dauka esan duenaz: ezin duela ezer esan ez duelako garai zaharra bizi izan.

Gaur egun hobeto bizi garela uste dut. Ez ditut garai zaharrak bizi eta ezin dut gauza asko esan baina gaur egun modernoago bizi gara eta erosotasun gehiago dugu. Lehenago modu batean bizitzera ohituak zeuden eta orainagoak estresatuak bizi gara. Oso zaila da bata edo bestea erabakitzea.

Donibane Lohitzuneko Ihauteri ttiki eguna

Lapurdiko tradizioak berreskuratuz

Ihauteriak joan dira aurten ere eta ohi bezala herri bakoitzak bere ohituren arabera ospatu ditu. Donibane Lohitzunen Ihauteri Ttiki eguna ospatu zuten otsailaren 13an. Lapurdiko ihauteriak berreskuratuz asmo dituen egun hau urtetik urtera ospetsuagoa bilakatzen ari da.

Goiz-goizetik Donibane-Lohitzune ikastolako eta eskola elebiduneko haurrak moztarrok jantzirik herriko kaleetara irten ohi dira ihauteriak ospatzera. Duela bospasei urte hasi ziren jai egun hau antolatzen Itziar Barriola ikastolako irakasleak azaldu digunez. “Eguberrietan eta ihauterietan hasi ginen kalera ateratzen. Gure asmoa ospakizun hauek euskalduntzea zen”.

Horrela, orain dela bi urte Lantzeko ihauteriak antolatu zituzten, eta aurten Lapurdiko kaskarot-martxa. Kontilun Gorri, Kaskarot, Ponpiera, Makilari, Entseñari, Besta Gorri, Jaun Andere, Hartz eta Zirtzil izan dira Donibaneko karraketan ibili diren pertsonaiak. “Haur gehienek Kaskarotaren jantzia nahi zuten, baina pertsonaia guztiak egon daitzezen saiatu gara. Arropak egiten, berriz, gurasoek hartu dute parte”.

Eta zein pertsonaia dira, bada, Lapur-

diko ihauterietako protagonistak?

Beharbada Kaskarota da ezagunena. Kaskarota neskak soineko xuria du, kolorezko bandarekin eta lorezko koroiarekin. Kaskarota mutilak, bestalde, galtza txuriak ditu, aldamenean marra gorri eta berdeekin, jaka gorriarekin eta kriskitinak joz ibiltzen da. Jaun Andereak Zuberoako maskaradetakako pertsonaiak dira. Entseñariak ikurriña eramaten dute eta Zirtzilak jende artean ibiltzen dira hauek amorratzen. Hartz ere pertsonaia garrantzitsua da Lapurdiko ihauterietan.

Pertsonaia hauek guztiak goizez taldeka banatu ziren Donibane-Lohitzunen. 30 hurrez osatutako taldetxo horiek herriko karraketan zehar banatu ziren abestiok abestuz:

*“Hiru eta lau, zazpi
zazpi eta lau hamaika,
odolkirik ez baldin bada
hobe dela lukainka”*

*“Thaute, ihaute, xingar eta arrol-
tze, bat edo bertzea, biak hobe”*

Abestiek dioten bezala, janaria eskatuz joan ziren. “Batzuk dirua eskaintzen digute, baina guk janaria eskatzen dugu. Aurrez dendari zenbaitekin solas egin ohi dugu eta goxokiak prest izaten dituzte haurrak agertzen direnerako” diosku Itziarrek.

Arratsaldean, berriz, jaialdi handi bat egin zen, bai ikastolako hurrekin eta baita eskola elebidunetakoekin ere. “Hasieran geu bakarrik hasi ginen kalera ateratzen, baina gero eskola ele-

Mixel Dhers





Mixel Dhers

biduneko irakasleei ere gurekin ateratzeko proposamena luzatu genien eta oso pozik onartu zuten” Itziarrek kontatzen digunaren arabera. Denak elkarrekin Kaskarot martxa, Zazpi jauzi, Mutxikoak, Zapatain eta Soka dantza dantzatu zituzten.

Bukatzeko, eta Lapurdiko ohiturari jarraituz, Pantzar pertsonaia gaixo tristea epaitu, kondenatu, fusilatu eta erre zuten.

Tradizioa berreskuratuz

Aurten, beraz, ihaurteriak euskalduntzeko asmo horrekin, Lapurdiko ihauteriak nolakoak diren ezagutzeko parada ukan dute Donibane Lohitzuneko haurrek. Kaskarot-martxa ezagutu dute, hots, kaskarotekin batera beste pertsonaiak ere izan direlarik.

Baina, nortzuk ziren kaskarotak? Ezagunak al ziren Lapurdin? Baiezkoa erantzun beharrean gaude. Lapurdin bizi ziren jatorri ezezaguneko taldeko kideei deitzen zitzaaien kaskarotak. Teoria desberdinen arabera, ijitoen azpialde batekoak ziren, mairu eta ijitoen nahasketatik sortuak edo agot eta ijitoen nahasketatik. Gizonezkoak arrantzaleak eta emakumezkoak arrain-saltzaileak izaten ziren. Gutxiengo taldea izan eta beren lege bereziak eduki arren, integratuta bizi ziren lapurtarren artean. Gaur egun, ez dira besteengandik bereizten.

Ihauterietako protagonista beti izan dira herriko pertsonaiak; Lantzeko Miel Otxin, Ituren eta Zubietako joarredunak, Zalduondoko Markitos... eta

Lapurdiko kaskarotak ere bai.

Pertsonaia hauek guztiek aspaldiko elementu sinbolikoak gorde dituzte eta hauen inguruan ospatzen diren ihaurteriek ere jatorri horretara eramaten gaituzte.

Baina, ba al dakigu bada, nondik datorren ihauteriak ospatzeko ohitura hori? Manuel Lekuonak “Obras completas” lanean dioenez “Ihauteriak artzai-jaiak dira, artzai-garian ezarritako jaiak. Nekazaritza baino lehenagoko kultura zaharreko jaiak dira. Artzaiak negua etxean igarotzen du. Menditik ardiekin jeitsi, eta etxean goxo-goxo igaro ditu neguko egunak. Otsailaz gero, ordea, mendirako bideak hartu behar ditu. Neguko egunetan izan du mahaian nahiko txerriki. San Martinetan menditik jeitsi denerako, etxean “matantza” egina zegoen, eta negu guztian otorduan ez du txerriki faltarik izan. Orain, ordea, mendira behar du. Mendian ez du txerriki xamurrik izango. Lapiko gozoa bai, baina zezinaz ongarriritua. Eta, gainerakoan nahiko gazta eta gazura... Baina okel samurrari agur egin behar dio orain sei-zortzi hilabeterako. “Aratuzteak” dira artzaientzat, haragi-uzteak.

Aldakuntza handia benetan, artzairen bizitzan. Horrelako aldakuntzak ondo ospatu beharrekoak izan ohi dira. Artzaiak “Ihauterietan” ospatzen ditu.”

Erroman ere, orain dela 2.000 urte Lupercalia zeritzaten jaiak egiten zizkioten otsoari. Manuel Lekuonak dioenez, Erromaren sortzaile ziren Romulo eta Remoek otso eme batek bere bula-

rrean hazi zituelako egiten omen zizkioten otsoari jai haiek. Dena dela, Lekuonaren ustez, mitoa baino oinarri sendoago dute Lupercalia jai hauek eta gure ihauteriak bezalaxe artzai jaiak omen ziren haiek ere. “Artzaiak otsoari -otsoa adiskide aurkitzeagatik- otsailean egiten zizkioten jaiak. Otsoa adiskidetu, otsoa limurtu, otsoari loxintxa egin, otsoa engainatu... Hori zen jai haien muina, ezkutuko muina”.

Jai hauekin batera Erroman Februaire izeneko elizkizunak ospatzen zituzten. Hitz honek garbitzea esan nahi du, garbikuntzea. Kapitolioan egin ohi ziren otsailaren lehenengo egunetan. Beraz, hilabete horretan ospatzen ziren Lupercalia eta Februaire. Biak ere artzairen jainkoa zen Pan Jainkoaren omenez egiten ziren. Otsailaren lehenengoan, beren Jainkoaren aurrean antxume batzuk opari eskaini ondoren, hildako antxumeen larruz moztortzen ziren. Gero plaza guztitik ahuntz-ugalezko zartailuz jendea zatitzen ibiltzen ziren.

Euskal Herrian Zubieta eta Iturenen ere antzeko moztorroak topatzen ditugu. Iturengo txutxurroek gerriko joale-kordaz gainera, gorputza ardi-larruz estaltzen dute egiten diren jokoak artzai kutsu gehiago izan dezaten. Joaleak, berriz, artzaientzat radarraren funtzioa betetzen zuen. Hauen hotsarekin artzaiak ederki atzematen zuen artaldea non zegoen lainoaldietan. Horregatik, euskaldunen artean joale lapurra zigorrik gogorrena zuena izan ohi zen, ia-ia hiltzailearen pareko bihurtzen baitzen.

Horregatik, joaleak goren-goreneko balioa izan du artzaientzat, gaizkilearen kontrako erremedioa izan baita. Baina horrez gain, joalearen durundak otsoa uxatzeko ere balio izaten zuten.

Baina, urteak pasa ahala, gizakia otsoarenganako beldur hori galduz joan da, beste gauza asko aldatu diren bezalaxe. Kultura bera ere aldatu egin da eta ohitura, folklore edota mitologia bezala gelditu dira joku eta jai hauek guztiak. Dena dela, ihauteriek gogoratze bederen balio digute!

GUTUNAK

Zuen kezkak,
iritziak,
desadostasunak
itxaropenak,...
adierazteko
lekua izan nahi
du.



Berriak

Bidal itzazu zure burutapenak irakasle
euskaldunon aldizkarira

MARTXOA



EILAS ere VI. Kongresuaren atarian

Euskadiko Irakaskuntzako Langileen Sindikatuak VI. Kongresua egingo du martxoaren 13, 14 eta 15ean Gasteizen. Kongresuak gainera esanahi berezia izango du aurten, sindikatuak 20 urte betetzen baititu.

Une honetako egora politikoa eta honek hezkuntzaren munduan duen eragina aztertuko da bereziki kongresuan: gobernuen jokaera, Euskal Herriko gatazka... Horrez gain, hurrengo urteetako sindikalgintzaren erronka nagusiak eztabaidatu eta finkatuko dituzte.

ELA-Irakaskuntzaren IV. Kongresua



ELA-Irakaskuntzak IV. Kongresua burutu zuen otsailaren 13an Donostian. "Geroa elkartasunean lantzen" lelopean irakaskuntzako 220 afiliatu bildu ziren. Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako ordezkariak eta irakaskuntzako langileak. Kongresuan aurreko hilabetetant landutako gaiak eztabaidatu ziren eta azkenean hurrengo lau urteetarako lan ildo zehaztu zen. Hemendik aurrera, hezkuntza politikari dagokionez, askoz ere ildo errebindikatioagoa jarraituko dute Hezkuntza Sistema propioa eratzeko beharrei erantzuteko.

Lan-baldintza hobeak lortzea eta lanorduak gutxitzea izango dira jorratuko diren ildo nagusiak. Horrez gain, irakasleria-egonkortasuna ere oso garrantzitsua dela azpimarratu zuten, eta baita giro eta erreko-

nozimendu soziala lortzea ere.

Bestalde, sare publikoko irakasle talde guztien erregulazioa eta parekatzearen aldeko bere jarrera berragertu dute. Euskal Funtzio Publikoaren Legearen aldaketak bere 10. atalean borondatezko funtzionarizatzea ahalbidetzen die orain arte eskubide hori gauzatzeko aukerarik izan ez duten lan-legepeko kontratua duten irakasleei. Aukera honen kontra PSOEk aurkeztutako errekurtsua dela eta, ELA-Irakaskuntza horren aurka agertu da. Irakasle hauen eta sare publikoko gainontzeko irakasleen arteko parekatzearen aurkako eraso dela uste du. Atzerapauso larria euskal hezkuntzaren sistema publikoaren normaltze eta arrazionaltze prozesuan.

ARGITALPENAK



BAT SOZIOLINGUISTIKA ALDIZKARIA 25. zenbakia 1997ko abendua

Hizkuntza normalkuntza eta glotopolitika aldizkari honen 25. zenbakiak eduki mamitsuak biltzen ditu. Dossier edo gai nagusi moduan unibertsitateko hizkuntz normalkuntzako bi eredu ezagutarazten ditu; Belgikakoa eta Euskal Herrikoa. Kas Deprez eta Armel Wynants irakasle flandiarren lanak eta Xabier

Isasi eta Koldo Asironenak osatzen dute aipatu dossiera.

Elkarrizketa Juan Ignazio Pérez UPV-EHUko Euskara Errektoreordeari egin diote. Iturri bila atalean Joxe Manuel Odriozola EHEko kideak "Udal Euskaltegien Komunikazio eta Marketinerako jarduera ildoak" gaia lantzen du. Ondorengo gaiak bi dira: Jean Loius Davanten "Lore jokoan ingurumenaz" eta Kike Amonarrizen "Turismoak euskarari zer? Euskaraz turismoari zer? (Bertiz-ko partzuergoaren kasua)".

EKONOMIAREN OINARRIAK GAIK

Oinarrizko liburutegia bilduma

Liburu hau LOGSE Batxilergoaren asmoak erdiz-erdi betetzeko prestatu dago. Jarduera eta sistema ekonomikoak, ekonomi ekoizpen eta interdependentzia, trukea eta merkaturia, lan-merkatua eta langabeziaren kausak... lantzen dira. Hori dena, euskal, espainiar eta europar herrialdeen kasuetarako egokiturik planteatzen da.



NAFARROAKO EUSKARA CD-ROMa Nafarroako Gobernu

26 grabazioen bitartez Nafarroako euskalkien bilduma aberatsa da Nafarroako Euskaraz CD-ROM hau. Euskalkiak entzun eta aldi berean idatzizko transkripzioa ikusteko aukera ematen du. Nafarroako euskalkien ezagupena

zabalduta eta errazteko asmoz argitaratu du Nafarroako Gobernuak. Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak.

ORTOGRAFIA EUSKARAZ WINDOWS-ERAKO

Euskararen ortografia menperatzeko programa informatiko bat da. Valentziako Edicinco enpresak prestatu du Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak agindutako material hau. 1000 ariketa inguru biltzen ditu arlo desberdinak lantzeko: H, S, Z, X, TS, TZ, eta TX fonemen, hitz larrien eta puntuazio-zeinuen erabilera, zenbakia, data edo aditz-erroa idazteko arauak... Euskaltzaindiaren azken erabakietan oinarrituta daude arau guztiak. 6 eta 16 urte bitarteko ikasleek erabiltzeko prestatu bada ere, euskararen ortografia ikasi edo gainbegiratu nahi duen ororentzat izan daiteke baliozgarria.



TANTAK EHUko Hezkuntza Aldizkaria 18. zenbakia 1997ko abendua

Zortzi artikulu desberdin biltzen ditu TANTAK-en azken zenbakiak. Besteak beste, Paulo Freireren ekarpenak, marrazketa libre, sare publikoa, B eredu eta XX. mende bukaerako hezkuntzaren orientabidea dira lantzen

diren gaiak. Liburuaren azken atalean argitaratutako liburu desberdinen berri ematen da, kolaboratzaileek egindako edukari buruzko iruzkina dutelarik.

A LA SOMBRA DE ESTE ARBOL

P. Freire

1996, Barcelona; El Roure

Paulo Freirek kaleratutako azken liburuen itzulpena da. Modernitatearen ondorengo ideologia nahasiari kritika egiten dio, eta era berean pertsonen egokitzapena bilatzen du. Gizakion funtsezko lana, ordea, ez da egokitzea, eraldatzea baizik. Hori bultzatzen zuen Freirek eta azken lan horretan ere ideia horiek defendatzen ditu.

JAKINGARRIAK

37. zenbakia

1998ko urtarrila

Azken aldizkari honen gai monografikoa "Tratu txarrak" da. Tratu txarren arazoak jabetzeko bibliografia zabal bat agertzen da lehenbizi. Ondoren, bost artikulu desberdin agertzen dira tratatu txarrak, eskola, prebentzioa, babes... landuz.



JAKINTZA IKASTOLAKO ALDIZKARIA

"Jakintza, garenaz mintza" izenburupean argitaratu du Ordiziako Jakintza ikastolak bere aldizkaria edo urtekaria. Ikastolako atal guztien berriak biltzen dira bertan, guraso, irakasle, ikasle, ikasle ohiak... denen dutelarik beren lekua. 1996-97 ikasturteko gertakizunak jasotzen dira bertan.



EVALUACION Y TRATAMIENTO PSICOPEDAGOGICO

A. Salvador

1996, Madrid; Narcea.

Liburu hau ikastetxeetan Orientabide eginkizunak bete behar dituzten psikologoei eta pedagogoei zuzendua dago. Derrigorrezko Hezkuntzako irakasleen ebaluazio eta tratamendu psikopedagogikoa egiten dabilenarentzat lagungarria izan daiteke.

Ikasleak bildurik eta etorkizunari begira



Ikasle Abertzaleek Euskal Eskola Nazionalak antolatu zituzten otsailaren 27, 28 eta martxoaren 1ean Usurbilen. "Ikasi eta irauli" lemapean hiru egunetan euskal irakaskuntzaren egoera aztertu eta hemendik aurrerako ildoak markatu dituzte bildutako 200 ikaslek.

Euskal Eskola Nazionalak antolatzeko xede nagusia gaur egungo irakaskuntza sistema estatalistari aurre egiteko modua bilatzea izan da. Horretarako, Ikasle Abertzaleek irakaskuntza munduko irakasle, elkarre, sindikatu eta pertsona desberdinak gonbidatu zituzten. Hitzaldi, eztabaida eta mahainguru desberdinak osatu ziren eta ondorioak atera ere bai. Edukien borroka eta hezkuntzaren autogestioaren beharra azpimarratu dituzte IAko partaideek hezkuntzaren egungo egoerari aurre egiteko bide bezala.

Ondorio hauetara iristeko irakaskuntzaren historia nolako izan den ezagutzeko aukera izan zuten Euskal Eskola Nazional hauetan bildutakoek. Horretarako han izan ziren hizlariak euren ikuspuntu eta iritziak azalduz: Fito Rodriguez eta Pablo

Iztueta irakasleak, Txus Congil Askagintzako kidea, Seaskako eta hegoaldeko ikastoletako ordezkariak, LAB, ELA eta EILAS sindikatuetako ordezkariak, Guraso Elkarreak, UEU, IPES, Txalaparta, Likiniano, Ibaetako ikasleak, Urtxin-txa eta HIK HASIko ordezkaria, besteak beste.

Partehartzaile hauekin arlo teoriko zein praktikoak muntatu ziren. Arlo teorikoan Frantziako eta Espainiako estatuek hezkuntzari zer-nolako erabilera ematen dioten ikuspegi eta aztertu zen. Eta tailer praktikoetan, berriz, hezkuntza sareen filosofia, aldizkari eta irratien erabilpena, metodologia, planifikazioa eta abar aztertu zituzten. Saharako, El Salvadorreko eta Kubako ordezkariak ere izan ziren hango irakaskuntza ereduak nolakoak diren azalduz.

Besteak beste, azpimarratu ziren ideia nagusienak hauek izan ziren: irakaskuntza herri baten etorkizunerako bitartekoa dela, egungo irakaskuntza sistema kapitalista eta estatalisten alde diseinatua dagoela eta euskaldunon historia, oroimena eta egoera alboratu eta itxuraldatzen direla.

Eguneroko lan bateratua

Euskal Eskola Nazionalaren emaitzarekin gustura gelditu dira IAko kideak, baina horrekin ez da bukatzen egitekoa. Eskola hauek tresna eta filosofia dira aurrera jarraitzeko. Horregatik, bilgune honek jarraipena izango du. Bertan ikasi eta aztertutako edukiak ikastetxeetan zabalteari ekingo diote ikasleek eta praktikan jartzeari, halaber. Elkarren arteko koordinazioa mantenduz eta ildo berari jarraituz, euren kezka gizarteratzeko asmoa ere badute. Horregatik antolatu zuten martxoaren 7ko manifestaldia. Hilabete honetan, Euskal Herriko hainbat puntutan ere mahainguruak antolatu dituzte irakaskuntzaren eta gizar-teko sektoreen arteko harremanak aztertzeko: ze erlazio egon behar duen irakaskuntza eta herriaren artean, arlo ezberdinekiko harremana (mundu euskaltzaletik, ekologikotik, emakume mugimendutik...), irakaskuntza eta sozioekonomiaren arteko erlazioa eta abar izanen dira aztergai.

Nafarroa Oinez urriaren 19an

Zangotzan ospatuko da aurten Nafarroa Oinez urriaren 19an eta aurkezpen ofiziala egin da jadanik. "Ametsa eraikiz" leloa izanen du, ikasle batek asmatua, hain zuzen ere. Leloak ikastola sortu zuten gurasoen asmoa eta egungo guraso eta irakasleena ongi azaltzen duela adierazi dute antolatzaileek; amesten duten euskarazko eta kalitatezko irakaskuntza eraikitzea.

Leloarekin batera agertuko den logotipoa mahatsondo hosto bat izango da. Eskualde osoa batu dezakeen irudia omen da, morea, marroai eta berdea, udazkenaren inguruan nagusi diren koloreetakin.

Zangotzako ikastola 1977an sortu zen guraso talde baten eskutik. 1987an 100 ikasle inguru zituen eta eraikin berri baten beharra sortu zitzaien. 1987. urtean antolatu zuten Nafarroa Oinez ateratako diruari esker lortu zuten egoitza berria.

Geroztik, ikasle kopurua igoz joan da eta beharrak ere bai. Momentu honetan 199 ikasle dira. DBH eskaintzeko estalpeko patioa egin behar izan zuten eta 60 milioko zorra dute orain. Zor hori kitatzeko helburuz dihardute aurtengo Nafarroa Oinez antolaketan.

Sortzen eta Ikasbatuaz elkarlanean



EAE eta Nafarroako irakaskutza publikoko bi taldeak elkarlanean aritzeko konpromezua hartu berri dute. Helburu berdinak izanik, arazo eta eginbeharretan elkarrekin jardungo dute. Hasteko, aurrematrikulazio garai honetan D ereduaren zabalkundeari ekin diote lehendabizi. Martxoaren 28an, berriz, Sortzenek Nafarroan urtero antolatzen duen Euskal Eskola Publikoaren jaietan ere elkarrekin bilduko dira.

Sortzen euskarazko irakaskuntzaren alde irakasle, ikasle eta gurasoen artean eratutako elkarte

da. Pixkanaka-pixkanaka hedatzen ari da eta bere lana gero eta ezagunagoa da.

Ikasbatuaz, berriz, 1993. urtean sortu zen EAEn sare publikora pasa ziren ikastolak bilduz bere baitan. Bertan eskola, komunitateko irakasle, guraso eta langileak biltzen dira. Euren helburuekin bat datozen ikastetxe publikoetara ere hedatzen ari dira.

Bien helburua euskal irakaskuntzaren kalitatea garatzeko bideak jartzea da eta horretara bideratuko dute elkarlana.

Frantses Jatsuko ikastolaren eraikin berria

Matxoaren 28an ospatu zen festan Frantses Jatsuko eraikuntzari hasiera eman zitzaion. Aurten 17 urte betetzen dituen ikastola hau egoitza berri baten beharrean zegoen DBHko eskakizunei erantzun ahal izateko. Iruñeko Mendebaldea auzoan eraikiko dute ikastola berria. Gaur egun 577 ikasle ditu, 40 irakasle eta beste 27 langile.

Egoitza berrian 731 ikasleentzako lekua izanen da eta 0 urtetik hasita eskainiko ditu bere zerbitzuak. Horrekin, 0 urtetik hasten den ikastola bakarra izango da Nafarroan. 1998-99 ikasturteko Gabonetako oporraldiaren ondoren martxan jartzeko moduan izango direla uste da.

Eredu euskaldunaren, D ereduaren, alde

D eredua, euskalduntzeko berma bakarra

Aurrematrikulazio garaia aprobetxatuz EHEk A ereduaren aurkako kanpaina jarri du martxan. "Geroa orain erein" lelopean eskolara ezezik, gizarte osora zabaldu nahi du euskalduntzearen aldeko deia.

Horretarako hiru ildo jorratzeko asmoa agertu dute EHEko kideek. Lehenengo Euskal Herri osoan euskara ofiziala izan dadin egingo dute lan. Gogoan izan behar da Iparraldean euskarak ez duela ofizialtasunik, eta Nafarroako zonalde ez euskaldunetan ere ez.

Bigarren lana Euskal Herri osoan irakaskuntza euskalduna denontzat lortzea da. EHEn iritiz, "berreuskalduntzea gure herriaren eskubidea izanik, eskola lehen mailako tresna da horretan, eta beraz, eskolaren helburua pertsona guztien euskalduntzea izan behar du. Euskaraz ikasteko eskubidea Euskal Herri osoan errekonozitua izan behar du". Baina, errealitatean daukagun egoera ez da horraino iristen. Jagoba Zulueta EHEko kideak dioen bezala, "ereduen sistemak ez du balio ikasle guztien euskalduntasuna bermatzeko. Hezkuntza ez unibertsitarioan EAEn ikasleen %54 A ereduari dago. 5.000 irakasle erdaldun baino gehiago daude. Nafarroan gaurko

legediaren arabera erdiak ez du zertan ikasi beharrik".

Unibertsitate mailan egoera okerragoa da. Euskal adarren eskaintza oso urria da eta ondorioz EAEn euskaraz ikasi duten %25ak eta Nafarroako %10ak erdaraz burutu behar dituzte ikasketak unibertsitarioak. Irakasleen %20a soilik da euskalduna.

Irakasle eskoletan ere euskarazko plangintza seriorik ez da egin eta ondorioz ikasle gehienek erdaraz burutzen dituzte ikasketak. Horrela, beheko mailetan D eredua gorantz doan heinean, irakasle erdaldunak ateratzen dira unibertsitatetik.

Egoera hau ikusirik, EHEk dio euskalduntzen duen hezkuntza bultzatu behar dela eta euskalduntzen ez duena desagertarazi. "Urteotako esperientzia ikusirik, argi gelditu da A ereduak ez duela ikasleria euskalduntzen, eta beraz, ez duela legeak dioena betetzen. Horregatik luzatu dugu eredu horretan ez matrikulatzeko deia".

Dei hori gurasoei baldin badagokie ere, EHEk gizarte osora zabaldu nahi du kezka. Horregatik, lan esparrua euskara hedabideetara zabaltzea izan da. "Ez eskoletara soilik, komunikazio esparru propioa eta zabala behar du euskaraz, eta zabalpen hori aurrera eramaten saiatuko gara" dio Jagobak. Komunikazio gizartean bizi garenez Euskal Herriaren berreuskalduntzea ezinezkoa da komunikabideen euskalduntzerik gabe.

Ez da guztien begiko

EHEek daraman kanpaina hau, ordea, ez da guztien begiko. A ereduaren aurkako kartelak direla eta, PPK berehala erreakzionatu du eta Inaxio Oliveri Hezkuntza sailburuaren azaltzea eskatu du Gasteizko Kamaran. Oliverik berak ere bere iritzia eman du, esanez "kanpaina kaltegarria dela euskararentzat". Era berean, A eredua B eta D bezain legala dela dio, baina Jagoba Zuluetak legeak dioena ez duela betetzen gogorarazi digu, alegia, A ereduari ikasten duten ikasleak ez direla euskalduntzen.

EKB ere D eredua bultzatuz

"Etorkizuna euskaraz dator. Matrikula ezazu euskaraz, D ereduari" lelopean ekin dio EKBk euskarazko irakaskuntzaren aldeko 10. kanpainari. EAEn bukatu bada ere, Nafarroan apirilaren hasieran burutuko da. Kanpainaren xedea lehenbiziko aldiz matrikulatuko diren haurren gurasoak kontzientziatzea da D eredua hauta dezaten.

EKBko kideek adierazi duten bezala, hainbat ikerketa eta adituren iritiz, haurren euskalduntzea bermatu eta gerora haurrek bi hizkuntzetan pareko gaitasuna lortzea ziurtatzen duen bakoarra D eredua da. Egia esan, D ereduko matrikulazio kopurua gorantz doa. 1995-96 ikasturtean EAEn haurren %50 D ereduari matrikulatu zen eta 1997-98 ikasturtean %55era igo zen kopurua. Dena dela, oraindik ere gehiago bultzatu behar da eta horregatik ekin dio EKBk aurten ere kanpainari.

Atlantiar kresalaren bila Portugalera

beriar Penintsularen mendebaldean, Atlantiar Ozeanoari patxadaz begira aurkitzen da Portugal. Duero, Tajo eta Guadiana ibaiek zeharkatzen duten lurralde honek 10.388.000 biztanle ditu. Bere 92.389 km²-tan zehar barreiatuak bizi dira, batzuk hirietan eta gehiengoak landan. Hizkuntza ofiziala portugesa da, eta Hezkuntza Sistema ere horretan oinarritzen da.

Hezkuntzako Lege Orokorra da Hezkuntza Sistema arautzen duen legea. Haur Hezkuntza, Oinarrizko Hezkuntza eta Hezkuntza ez-formala erregulatzen ditu. Lurralde guztian Sistema bera dago indarrean, bai penintsulan eta baita eskualde autonomoetan ere. Modu malgu eta anitzean antolatuta dago eta erraztasun handiak eskaintzen dira. Horrela, ikasketa eskubidea eta aukera berdintasuna bermatzen dute.

Estatua da irakaskuntzaren demokratizazioaren arduraduna, baina ezin ditu ez hezkuntza eta ez kultura norabide filosofiko, estetiko, politiko edo erlijioso baten arabera zuzendu. Estatuko irakaskuntza akonfesionala izanik, ikastetxe pribatu eta kooperatibo-

ak sortzeko eskubidea ere bermatzen du.

Haur Hezkuntza ez da derrigorrezkoa Portugalen. Baina gobernuaren helburua haurren %90 matrikulatzea da mende bukaerarako. Derrigorrezko hezkuntza 6 urterekin hasten da eta dohainekoa da. Guztira bederatzi urte irauten du eta hiru ziklotan banaturik dago. Lehenengoak lau urte irauten du, prestakuntza orokorra irakasten da, irakasle batekin eta lehen zikloko eskolatan.

Bigarren zikloa urte bikoia da eta ikasgai diziplinarteko arloak lantzen hasten da. Normalean arlo bakoitzeko irakasle bat egoten da. Bigarren ziklo hau ikastetxe desberdinetan ikas daiteke: "C" eskolatan, "C+S" eskolatan eta Oinarrizko Eskola Orokor esperimentaletan.

Hirugarren zikloa 12 urterekin hasi eta 14 urterekin bukatzen da; beraz, hiru urteko iraupena du. Maila honetako irakaskuntza oinarrizko ikasketa planean finkatua dago. Arlo teknologikoko gai desberdinak barneratzen ditu. Gai bakoitzeko edo gai multzo bakoitzeko irakasle bat egon ohi da. Hirugarren zikloko eskolatan, "C+S" eskola orokorretan, bigarren mailako zentroetan eta Oinarrizko Eskola Orokor esperimentaletan irakasten da.

14 urterekin bukatzen dituzte ikasle

portugesek derrigorrezko ikasketak. Ondoren, ikasten jarraitu edo ez, aukerakoa da. Jarraitzekotan, hiru urteko zikloa hasten dute. Ziklo honetan bi aukera daude. Alde batetik, ikasketa unibertsitarioak egiteko kurtso orokorrak daude. Eta bestetik, Lanbide Heziketara bideratutako kurtso teknologikoak daude. Kurtso batetik bestera pasatzeko aukera ere bermatua dago.

Maila honetan ikasleek irakasle ugari dituzte, bakoitza arlo bateko arduraduna delarik. Ikasketa hauek egiteko, bigarren mailako eskolatar joaten dira portugesak.

Goi mailako ikasketak egiteko orduan ere bi aukera daude: unibertsitateak eta instituzio politeknikoak. Bai batean eta bai bestean, sektore pribatua indartsuagoa da beheragoko mailekin koparatu. Ikasleen %45a instituzio pribatutan matrikulatzen da goi mailan, eta lehen eta bigarren hezkuntzan, berriz, %6a da pribatura joaten dena.

Esperientzia kuriosoa

Orain arte ikusitako eredu Portugalen zabalduna dagoena da. Baina tarte beste eskola mota batzuk ere topa daitezke. Adibidez, "St. Amaro" Haur Eskola. Eskola hau nekazal gune batean kokaturik dago eta bertara iristeko bidea ez da oso erraza. Herrixka honetan dagoen eskola irakasle gizonezko


baten ardurapean dago eta emakume baten laguntzarekin egiten du lan. Goizeko 9.00etan irekitzen dituzte eskolako ateak eta arratsaldeko 4.00ak arte ez dituzte ixten. 3 eta 6 urte bitarteko 14 haur joaten dira bertara. Haurrek euren eskola-egunkaria argitaratu eta herrian banatzen dute, gazta egiten dute eta beste nekazal proiektuetan ere

parte hartzen dute. Era berean, denda, baserri eta herriko lantegiak bisitatzea joaten dira. Gurasoek euren seme-alabekin parte hartu eta lan egiten dute uzta jasotzeko garaian, herriko festetan eta abar.

Helburua eskola herrian integratzea da eta antolaketa osoa horren arabera egiten da. Gurasoek partaide dira eta

informazioa eman zein jaso egiten dute. Erabakiak ere denen artean hartzen dira, guraso, langile eta ahal bada ikasleen artean. Eskolaren zerbitzuek herriko eta auzoko komunitatearekin harreman formala eta informala lortu behar dute. Gurasoak eta komunitatea, guztiak daude eskolan inplikaturatuta.

Portugaleko Hezkuntza Sistema



Zer da eskultura? (I) Batasun didaktikoa

Imanol Agirre Arriaga

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Irakaslea
Psikologia eta Pedagogia Departamentua



Z

ergatik hasi eskulturarekin? galdetu dezake norbaitek. Ez al da lehenago margogintza edo marraz-

kigintza? Ez al da errazagoa? Guk ez dugu uste bata bestea baino errazago denik, ezta lehentasuna daukanik ere. Egia da margogintza ezagunagoa zaigula. Edonork eduki dezake koadroren bat etxean zintzilik, baina oso gutxik daukagu eskulturak toki falta delako edo ohitura gutxi dagoelako, berdin da.

Baina denok bizi gara eskulturen artean, eta gero eta zerikusi gehiago dute gure ingurunean ematen diren fenomeno estetikoek tridimentsional-

tasunarekin: berdin da arkitekturan zein ibilgailuen edo etxeko traste arruntetan. "Diseinuaren" beharra eta kezka gero eta nabarmenagoa dugu nonahi. Eta hala ere, hiru dimentsioko formalizapenaren "misterioaren" arrastorik ez dugu. Erabat ezezagunak zaizkigu hiru dimentsiotan aritzeko behar diren trebetasunak eta prozedurak. Arteari dagokionez, beti bi neurritan mugitzen da gure irudimena, paretaren kontra edo paretetik zintzilik.

Bestalde, lehenago behintzat, Euskal Herria eskultoreen lurraldea zela esaten zen. Ba omen genuen, batzuen ustetan, halako jatorrizko sena berezia eskulturarako. Baina orokorrean, eta eskolan zer esanik ez, eskulturari buruzko berri gutxi izan dugu. Batek ezezaguna delako, eta bestetik aurkitu berria den espazioarekiko adime-

naren garapenerako egokia baino ezinbestekoa delako, aukeratu dugu, bada, eskulturari buruzko batasun didaktiko batekin jarraitzea proposamen praktiko sail hau.

Batasun didaktiko honek hiru dimentsioko artelanen ezagupena areagotzea du helbururik nagusiena. Beste edozein arte arloetan gertatzen den bezala, eskultura bere ahalmen sinbolizatzailearengatik erabilia izan da kultura askotan; sarritan artistek sentimenduen agerbide bezala eta apaingarri edo ikerketa estetikorako ere bai. Une berean, eskoletan ohikoak ez diren zenbait prozedura erraz eta oso emanakorrak bultzatu nahiko genituzke gure ikastetxeko geletan. Honekin, haurren adimena eta ezagupenerako ahalmenak zein estrategiak izugarritzko eztenkada jasoko dute, errealitateari,



eta bereziki, artearen atal honi, zabalagoa eta sakonagoa den beste begirada eta jarrerarekin aurre egin ahal izateko.

Hau guztia gutxi balitz, batasun honetan ikasleak garai eta eremu ezberdinetako eskulturek erabilitako baliabide sinbolikoen aniztasuna ezagutu ahal izango du. Horrez gain, materialen egokitasuna, erakuntzaren arazoak, zailtasun teknikoak eta giza erabilpenetaz hausnarketa bat egitera bideratuko zaio.

Oso garrantzizkotzat jotzen dugu ikasleak batasun honen bidez lortutako esperientzia baliagarria izatea bere ingurunean dituen fenomeno artistikoak aintzakotzat hartu eta hobeto ulertu ahal izateko. Baina hau ez da nahikoa izango ikasleak bereganatutako "sentsibilitate" eta jakinduria berak sortutako artelanetan aplikatzen ez baditu. Horregatik batasun honek alde ikertzaile edo pertzeptiboek zein alde ekoizleei arreta bera jarriko die.

Badakigu, noski, eskultura egiteak dituen zailtasun teknikoak -batzuetan,

behintzat- gaindiezinak direla haurrentzat eta ikastetxe gehienek dituzten baliabideak ez direla oso ondo egokitzen era honetako ekimen batetara. Horregatik baldintza hauek kontuan izango ditugu gure proposamenak egiterakoan. Hala ere, hemen azaldutako ariketaren bat zeuen ahalbideekin bat ez datorrela ikusiko bazenute, ariketa



horrek dituen xedeak betetzen dituen besteren bat aurkituko duzue arazorik gabe. Garrantzizkoena ez da, beraz, pausoz-pauso hemen proposatutakoa jarraitzea, baizik eta markatutako estiloa eta norabideari jarraikiz, bakoitzak bere baliabideak ahal dituen neurrian erabiltzea. Hau dela eta, aurreko HIK HASI zenbakietan proposatutako ikonotekaren bidezkoitasuna oraintxe frogatzeko aukera izango duzue. Oraindik antolamendu hura hasi gabe baldin baduzue, hau izan daiteke hori martxan jartzeko aukera paregabea.

Batasun didaktiko honek disziplinan oinarritutako Arte Hezkuntzaren (DBAE-DOAH) ereduari jarraituko dio, gutxi gora-behera. Ez horrenbeste eredu honekin erabat ados gaudelako, baizik eta honek antolamenduaren agerpena errazten digulako. Horregatik eredu honen zaleak zaitenok, kasu batzutan heterodoxiaren kutsua hartuko diozue proposamenari eta jarraitzaileak ez zaitenok estuegi eta lotuegi ikus dezakezue gure azalpena.

Eta azkeneko oharra edo aurrezaztapena: ariketak prestatzerakoan ez dugu pentsatu adin zehatz bateko haurrengan. Gehienbat, Arte Hezkuntza deritzogun atal hau batere sailkatua ez delako, eta haurren maila esperientziari dago-kiolako adinari baino. Horregatik oso ulermen zabala eduki dezaketen proposamenak egiten saiatu gara, aniztasunaren eta desbideratzearen aukera gehiegi zehaztu eta itxi gabe. Beste hitzetan esanda, aldaketa edo egokipen txiki bat eginez, edozein proposamen Lehen Hezkuntzako seigarren edo lehen mailarako aproposa bilaka daiteke. Zuen esku gelditzen da, hortaz, hemen emandako iradokizunei eta ereduari jarraituz egokitzearen lana egitea. Ez dugu inor kanpoan utzi nahi artearen inguruko abentura ikertzaile atsegin honetan. Horregatik, hemen aurkeztutako materiala guztiontzat ideia berrien suspengarri eta eguneroko praktikarako lagungarri izango zaizuelako esperantzan aritu gara. Hala bedi!

Helburuak

Oharmen-interpretazioaren arloa

-Kontestu historikoen arabera, eskultura lanek dituzten aldakuntzak ezagutzea.

-Lurralde eta kultura ezberdinetako eskulturen adierazpen sinbolikoaz hausnarketa eta ikerketak egitea.

-Eskulturaren erabilpen sinbolikoak gaur egungo kulturaren duen eragina aintzakotzat hartzea.

-Deskribatzeko eta aztertzeko esperientziak sortu norberaren ahalmen kritikoa areagotzeko.

-Ezaugarri sinbolikoak ezagutu eta interpretatzeko gaitasuna garatzea.

-Norberaren lehen tasun estetikoak justifikatzen jakitea.

-Eskultura mota ezberdinen artetasunarekiko erantzumenaren gaitasuna lantzea.

-Artelanek emozioak, ideiak edota desioak azal ditzaketela ulertaraztea haurrei.

-Eskulturek bete ditzaketen funtzio ezberdinen ezagupena eta hauek bereizteko gaitasuna norbereganatzea.

-Arte hiztegia ugaltzea eta zenbait kontzepturen esanahiaz jabetzea.

Ekoiaren arloa

-Hiru neurritako eskulturak zein objektu eskultorikoak sortzea.

-Ideia batetik abiatuz, eskultura bat sortzeko prozesua aurrera eramaten jakitea.

-Material ezberdinen bidez prozedura ezberdinak garatzea.

-Ideia edo proiektu bakoitzerako egokiena den materiala eta prozeduraz hausnartzea.

Edukiak

Batasun didaktiko honen bidez plastika arloko edozein helburu eta eduki lan daitezkeela esan daiteke; itxuraz margogintzari soilik dagozkion kolorearen ingurukoak barne. Baina, beste

batasunetan lantzeko propioagoak diren edukietan denbora gehiegi ez galtzarren, edukiei eskainiko diogun atal honetan, bereziki, eskulturaren ikuspegi tradizionalari dagozkionak azpimarratuko ditugu.

Blokeetan banaturik azalduko ditugu, banan-bana denak aipatzea luzeezia izango litzatekelako eta, gainera, azken hautaketa beti zuen desio eta beharretan gelditu egin behar delako. Hortaz, hona hemen guk proposatutakoak:

-**Hizkuntza plastikoa** deitzen zaion blokeari dagokionez, oso egokiak dira batasun honetan lantzeko honako hauek: forma, azala edo xafla, lerroa, argia-itzala, espazioa (barnekanpo, erdia-ingurunea, hutsa bete), ehundura (latza, leuna eta abar), tentsioa, erritmoa, proportzioa eta abar.

-**Sentsibiltate** estetikoari dagokionez, eskulturari buruz aritzerakoan aukera paregabea izango duzue sentimenduak lantzeko (tristura, ironia, bakea, egonezina eta abar). Pertzepzio edo oharrena ere landu daiteke formen kalitate estetikoaz jabetzeko (edertasuna, oreka, handitasuna). Azkenean, guk hautatutako eskulturek artelanen balio eta erabilpen sozialei buruz aritzeko parada bikaina

eskainiko dizute (apaingarritasuna, sinbolizazioa, erabilgarritasuna, adierazgarritasuna eta abar).

-**Prozeduren** arloari begiratu, lehenago esan bezala, ia plastikari dagozkion guztian landu daitezke. Hala ere beste disziplinetan ohikoak ez diren horiek azpimarratuko genituzke guk: eraiki, modelatu, proiektatu, eskala erabili, manipulatu eta abar. Bestalde, batasun honetan landu beharko dituzue arruntagoak izan beharko luketen beste prozedurak eta jarrerak: ikertu, taldean lan egin, sailkatu, aurkezpenak txukundu eta abar.

-Bukatzeke, Lehen Hezkuntzan oso berria den **arte eta kulturari** buruzko edukien blokearen beharrak ere arazorik gabe asetu ahal izango dituzue batasun honekin. Batasunaren azken atalean duzuen eskulturen deskribapenak eta iruzkinak begiratu besterik ez duzue egin behar, kasu guztietan testuinguru kulturalerako aipamenak egin direla konturatzeko. Hortik aurrera, hemen emandako berrien osakuntza irakasle eta ikasleok sortutako talde ikertzaileei dagokizue, ingurune kulturalari buruzko azterketa eta sentsibilizazioa eramatea, nahi duzuen muturreraino joanez.





Hiztegia

Hona hemen batasun honetan erabili beharra izango duzuen hiztegitxoren bat. Gehienak oso ezagunak baldin badira ere, entziklopediak eta hiztegiak airean jarri beharko dituzue hauen esanahiak bilatuz eta, bide batez, hemen agertzen ez direnak zerrendari gehituz. Batzuetan hiztegiaren agertzen den esanahia ez zaigu axolako, eskulturaren mundura hitz horrek duen aplikapena baizik. Horrelakoetan hiztegiari begiratu ezezik, irudimena ere martxan jarri beharko duzue.

Eskultura
Estatua
Erliebea
Monumentua
Irudikatu
Bolumena
Eskultorea
Modelatu
Argina
Harria landu
Maketa
Eraiki
Zintzela

Burdina
Fundizioa
Sinboloa
Boterea
Indarra
Energia
Dinamismoa
Babesa
Prestijioa
Handitasuna
Zoria

Materialak

Material anitz erabil daiteke aukeratutako proiektuen arabera. Hala ere, bereizi egin beharko ditugu ekoizpenaren eta oharren-interpretazioaren arloak hemen ere. Bigarren honetarako derrigorrezkoak dira irudiak (liburuetakoak, diapositibak eta abar, ikonotekaren antolamenduaren kasuan esaten genuen bezala), proiektore bat, kartoizko kuaderno eta portafolio bat...

Ekoizpenerako, berriz, ia edozein gauza erabil daiteke: papera, kartoia, poriespana, egurrak, zakarrak, plastikozko botilak zein poteak, eta, nola ez, ohiko buztina, igeltsua edo paper maché ere bai.

Guk hautatutako irudiak

- Parella (1985). Andrés Nagel. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Bilduma. Arteleku.

- Omako Basoa (1983-1991). Agustín Ibarrola. Oma (Bizkaia)

- Irudi etzana (1939). Henry Moore. Detroit Institute of Art.

- Mandolina eta klarineta. (1913). P. R. Picasso. Pariseko Picasso Museoa.

- Emakume baten burua (1917-1920). Naum Gabo. Museum of Modern Art (MOMA). New York.

- Kariatidea (zutabea). K.A. IV. mendea. Delfos.

- David. Migel Angel Buonarroti. XVI. mendea. Florentzia.

- Hil harria. San Telmo Museoa.

** Hemen azaldutako hauek beste edozeinengatik alda daitezke. Gu lurralde eta garai ezberdinetako lanak aurkezten saiatu gara, eta gehienbat esanahi eta erabilpen oso desberdinak (ez soilik dekoratiboak) dituzten eskulturak aurkezten. Hau eredu bat izan daiteke. Bestalde, hiri batean baldin bazaudete, aukera handia izango duzue bertako museoa edo kalean

dauden eskulturak zuzenean ikusteko. Hau da, dudarik gabe, eskulturaz jabetzeko modurik egokiena. Hiru dimentsiotako artelanak zuzenean ikustea (ukitzea, inguratzea) bezalakorik ez dago. Zoritxarrez denok aukera hori ez daukagulako proposatzen dugu irudien erabilpena.

Batasunaren garapena

1. Aurre ebaluaketa

Gaiarekin hasi baino lehen haurrek eskulturari buruz zer dakiten jakitea komeni da.

Hau burutzeko bi ariketa proposatzen ditugu:

a) Haur bakoitzari eskultura baten irudia ekartzeko eskatuko zaio. Berdin da argazki bat, aldizkari batetik moztutako irudi bat edo liburu batetik fotokopiatutakoa. Kontua da zer eta zergatik aukeratu duen haurrak eskultura hori ikustea eta eskultura hitzak berari zer esaten dion jakitea.

b) Irudiak gelaritzen dituztenean elkarrizketa orokor bat egitea iradokitzen dizuegu. Honako galdera hauek izan daitezke elkarrizketaren bideratzaileak:

- Nor daki zer den eskultura bat?

- Non egoten dira eskulturak?

- Nolakoak izaten dira?

- Nork egiten ditu eskulturak?

- Ezagutzen al duzue eskulturaren bat?

Galdera hauei edo era honetako galderari erantzuteko, haur bakoitzak berak ekarritako eskulturaren irudia aurkeztuko die besteei, berari buruz duen informazioa azalduz eta zergatik aukeratu duen argituz.

Bukaeran bakoitzak ekarritako irudiarekin batera, saio honetan zehar azpimarragarriak diren definizioen edota bitxikerien berri jasoko dute portafolioan eta koadernoan gordez.

2. Sarrera eta gaiaren oinarrien ezarpena

Lehenengoz irakasleok, laburbilduz, aurreko saioko galderari adituek ematen dieten erantzuna aurkeztuko duzue.

Horretarako arestian aipatutako hiru eskulturen irudiez (diapositibaz edo bideoaz) balia zaitezkete. Eskulturaren inguruko kontzeptuak plazaratzeaz gain, zehatz-mehatz azalduko

duzue bakoitzaren esanahia, hiru lanak erkatuz. Horrela, haurra hiru eskulturen artean dauden ezberdintasunez jabetuko da eta denbora eta lurraldeen arabera eskulturen itxurak eta esanahiak nola aldatzen diren baloratu ahal izango du.

3. Elkarrizketa

Aurkezpen hori egin ondoren, irudi hauei eta gainontzeko guztiei buruz **elkarrizketa** bultzatuko duzue, eremu hauek jorratuz:

Historia

-Egilearen berri laburki emango duzue (ikasle mailari egokituz), noiz eta non lan egin zuen (egiten duen) azpimarratuz.

-Garai hartako bizitzari buruzko ezaugarri nagusiak aurkeztuko ditugu (beste irudiak, olerkiak edo pasarte literarioak, musika eta abar erabil daitezke).

Arte kritika

-Hiztegiarekin aritzea. Irakasleak azaldutako zenbait terminu jorratu eta esanahiaz jabetu.

-Formen arteko harremanak aztertu.

-Materialen ezaugarriez mintzatu.

-Gaiaren deskribapena egin.

-Materialek zein formek gaiaren errepresentazioan duten eragina aztertu.

Irudipen estetikoa


-Eskulturak sortzen duen sentsazioaz mintzatu.

-Eskulturari kokapen bat eta izenburu bat bilatu.

-Emandako kalitate edo beste objektuen zerrenda batekin parekatu, zergatia azalduz.

-Eskultura bakoitzaren erabilpena bereizi.

Hauek guztiak lantzeko galdetegi baten proposamena egingo dizuegu. Baina esan beharra dago hau eredu bat besterik ez dela izan behar. Irakasleok alde aurretik (beste irakasleekin bada hobeto) irudiak ikusi eta arestian aipatutako ariketak egin ondoren, jasotako inpresioetatik abiatzea da garrantzikoena. Horrela, norberaren esperientzietatik abiatuz, errazagoa izango zaizue hurrek markatutako bideari jarraitzea. Hemengo galdetegian laguntza aurkituko duzue, hala ere, isiluneetan elkarrizketa berpizteko edo haurrak interes berrietara ernetzeko. Hona hemen, bada, gai hauek lan-



tzeko egin daitezkeen galderen edo proposamenen adibide batzuk:

-Gaia identifikatu (zer da?).

-Erabilitako materialak hutsak ala beteak dira? Non aurkitzen dira?

-Nolakoa izango da ikusten ez den aldea?

-Zein da zure ustez eskulturaren zatirik garrantzikoena? Zergatik?

-Kolorerik ba al du? Zergatik?

-Koloreztatuko al zenuke? Zein kolorez?

-Zerez eginga dago?

-Egiteko zaila ala erraza dela iruditzen zaizue?

-Non koka daiteke? Barnean, kanpoan?

-Nolakoak dira bere formak? Zuzenak? Bihurguneak? Hautsiak?

-Zerbait gehitzekotan, zer gehituko zenikete?

-Eta zer kendu?

-Errealitatea azaltzen al du?

-Ederra al da?

-Zerbait gogorarazten al dizu?

-Etxean ipiniko al zenuke? Non?

-Norbaitek oparituko balizu, zer egingo zenuke?

-Erabili hiru adjetibo irudi bakoitzaren itxura deskribatzeko.

Oso garrantzikoa da, ahal den neurrian, elkarrizketa ikasleen bizitzako esperientziekin lotzea; beraiek eskultura munduarekin (edo artearekin) duten harremanarekin uztartzea, alegia.

Esan beharrik ez dago, derrigorrez galdera guztiak ez direla egin behar saio bakoitzean. Haurren adinaren arabera, irakasleak jakingo du zenbat iraun dezaken elkarrizketa saio honek. Bestela ere, galdetegi honetan agertzen diren zenbait aspektu lan daitezke beste ariketen bidez.

Horrez gain, gure aholkua elkarrizketa saio bakarrean, jarraian, ez egitea da. Hobe dugu elkarrizketaren aspektu batzuk planteatu eta beste eratako ariketetara pasa, hurrengo saiorako berriz elkarrizketarako denbora utziz. Bestela ere, gero aipatuko ditugun proiektuak aurrera doazen heinean, behin eta berrero jo beharko dugu eskultura hauen -eta lana egin hala agertzen diren beste batzuren- irudiak errepasatzera eta iruzkinak egitera.

Elkarrizketak, hortaz, baliabide didaktiko bat gehiago besterik ez du izan behar batasun honetan. Irakaslearen aurkezpena eta elkarrizketarekin batera beste eginkizun asko burutu daitezke eskulturarekiko sentiberatasuna eta oharmen kritikoa jorratzeko. Hurrengo puntuetan aipatzen ditugunak, adibidez.

4. Ikerketa bat inguru historiko eta kulturaletaz jabetzeko

Adinaren arabera, ikerketa txiki batzuk egitea eska diezaiokegu haurri; artistaren bizitza, bere garaikideen ohiturak zein ezaugarri sozio-kultura-



lak edota artelan zehatz baten gora-beherak izan daitezke ikerketa horren gaiak.

Horretarako bide bat baino gehiago dago. Oso lan testuala izan daiteke, eta orduan, haurrak liburuetatik obraren inguruari buruz jasotzen dituen datuek eta ilustrazioek osatuko dute ikerketaren zutabea. Baina hain akademikoa ez den modu batean ere planteatu daiteke. Adibidez, mural edo "collage" bat eginez. Adinak zeresan handia dauka aukera honetan, noski, baina ez diegu derrigorrez lehenengoa handienei eta bigarrena txikienei ezarri behar. Ikonoteka martxan baldin baduzue, ez da zaila izango era honetako ikerketa txiki bat burutzeta haurrekin. Adibidez, eskultore baten garaikideak diren beste artisten artelanak bilatuz eta lortutako informazio guztiarekin arestian aipatu bezalako lan plastiko bat proposatu.

Ideien faltan bazaudete eta gaia beste disziplina batekin lotu nahi baduzue, hona hemen aukera pare bat:

1- Guk proposatutako bi irudiei jarraikiz, jorra daiteke, adibidez, *Picasso eta bere bizitza* gaia. Malaga, Bartzelona, Paris eta Gernika ormaurdi baten abiapuntu emankor bat izan daitezke eta honi buruzko informazioa edozein entziklopediatan eta, noski, arte liburu espezializatuetan aurki daitezke.

2- Askoz gertuagotik jotzen digu beste gai honek, *Hilerriak eta aintzina-ko baserritarren ohiturak*. Hizkuntza, natur eta sozial arloetara artearen



eskutik sartzeko aukera bikaina eman- go digu. Collage baterako oso gai aproposa bilaka daiteke irudiak edota bertsoak aurkitzen baditugu.

Jarritako adibide guztietan, hala ere, kontuan izan beharko dugu, Arte Hezkuntzari dagozkion edukiak ongi zehaztu ete bete behar direla.

5. Sinestesiaren ariketa bat sentiberatasun estetikoaren lantzeko


Irakasleak proposatutako olerki edo musika sorta batetik abiatuz, ikasleak horiek eskultorekin erlazionatzen saia daitezke. Gaiak ez du izan behar derrigorrez harremanak bilatzeko eredu bakarra. Ez da hau bilatzen ari garena. Era honetako ariketaren helburua sentipenak berpiztea da eta horregatik elkarketarako erabiltzen dugun ohiko lagina alboratu eta sentimentuari bidea irekitzea komeni da. Oso modu ezberdinean esperimentatzen da *Hil Harriaren* eskultura, adibidez, J.S. Bach-en musika adituz edo Xuberoako txirula baten musika adituz. Nahiz eta hasieran haurrak oso ondo ez ulertu zer eskatzen ari garen ere, denborarekin eta guk jarritako adibideekin ohitu egingo da era honetako esperientzietara eta oso emankorrak bilakatuko dira bere sentiberatasun estetikoaren garapenerako.

6. Pentsamendu eta irizien murala

Arteari buruzko hausnarketa eta oharreneko atal hau jorratzeko, oso egokitzat jotzen dugu "adierazpen askearen espazioa" izendatzen dugun bazterren antolamendua. Gelako txoko batetan jarritako paper txuri handi bat edo kortxo- zko mural bat izan daiteke adierazpen espazioa. Han, batasun didaktikoa lantzen ari den epealdi horretako edozein momentutan, hurrek zein irakasleak gaiarekin lotuta dator- kion edozein burutapen idatz edo atxiki dezakete. Adierazpenak librea izan behar du eta ez diegu haurrari mugarik jarriko.

Berdin da nork jartzen duen eta zer jartzen duen, baina tabernetako komu- netan gertatzen den bezala, jarritako- rekin norbait ados egongo ez balitz, bere desadostasuna azal dezake. Sarri- tan, "adierazpen askearen" muralean sortutako eztabaidak oso emankorrak suerta daitezke elkarrizketarako

HIRU LIBURU GOMENDAGARRI



Bederatzi ipuin irudimentsu eta irrigarri.
Eduardok animalia bihurtzen ditu bere inguruakoak.
Patxi txakurrarekin hitz egiten du.
Fabriziok liburuak jaten ditu.
Eta abar...



Zazpi urteko neskatila baten, liburu batetik ihes egindako krokodilo baten eta ikastolan jaiotako oilo baten komeriak.



Erromes baten koadernoan aurkitutako ipuin eta poemak.



SAILA

12 URTETIK AURRERA

3. Pol eta Puy.
- 7 Nikobobino.
15. Franze.
16. Hegoamerikako ipuinak.
18. Gulliver Liliputen.
20. Nikolas txikiren oporrak.
24. Zentzu bakarreko kalearen ipuina.
25. Astakiloak jo eta jo.
27. Lore erradioaktiboak.
28. Nikolas txiki eta bere lagunak.
31. Nikolas txikiren errekreoak.
32. Gautxoriak.
35. Nikolas txiki.
36. Pernando amezketarra.
37. Burbuila mila kiloko arraina.
38. Ate atzeko sekretuak.
39. Benek anna maite du.
43. Erinias taberna.
44. Aitaren bila.
53. Sasi arteko ezkutalekua.
54. Izar bat naiz.
55. Abereen etxaldea.
56. Maiatzean 15 urte.
57. Kanpai hotsen misterioa.
60. Agure jakagorria.
63. Mezua.
67. Hauts madarikatua.
73. Apaiz zaharraren gitarra.
75. Din, dan, don... kanpai-lapurrak non?
76. Bi istorio.
77. Jette.
78. Pirata jokoa.
82. Nikolas txikiren komeriak.

10 URTETIK AURRERA

1. Tigretxo orroelaria eta gangsterrak.
4. Emilio eta detektibeak.
5. Lientzo txuria.
6. Nabukodonosor.
9. Gaizki ateratako argazkia.
10. Ametsen kontrabandista.
11. Errusika.
12. Lotte eta Luisa hau bizki pare!
13. Antzerkilandia.
17. Ezin da ipuinik asmatu ala?
21. Estitxuk pirata izan nahi du.
22. Ipuin naturalak.
23. Maripertxenta.
26. Ixu, hortzik gabeko marrazoa.
29. Nikolasaren abenturak eta kalenturak.
30. Ramuntxo detektibeak.
40. Jolas egiteko ipuinak.
41. Azeri beltza.
42. Gezi urdina.
46. Sorgin txikia.
48. Urtegi misteriotsua.
50. Metak eta kometak.
51. Eskubeltz taldearen abenturak.
58. Amona sagar gainean.
59. Kitano.
61. Lazkao txiki.
62. Maddi oporretan.
65. Bidaia ahaztezina.
66. Arkatz fantastikoa.
68. Telefonozko ipuinak.
70. Malkos.
74. Nire familia eta aingerua.
79. Gilbortzio eta Argaltzio.
80. Katixa, Kroko eta Kokoroko.
84. Arranopola!

8 URTETIK AURRERA

2. Suzko Zapatak eta Haizeko Sandaliak.
8. Katixa eta kroko.
14. Tilin-talan.
19. Etxeorratzeta.
33. Pippi kaltzaluzte.
34. Esaera zaharrak eta txiste berriak.
45. Tomas txorimalo.
47. Hitzak jostailu.
49. Txerrama errudun.
52. Igarkizunak.
64. Bazen behin, behin bazen.
69. Miru eta Mara.
71. Ziprintin.
72. Pippi itsasorako asmotan.
81. Pippi hegoaldeko itsasoetan.
83. Atea kox-kox.

